

TOKIKOM

2015eko ekaina | 149. zenbakia

aita-ahia!

aldizkaria

Josu Gallastegui

Etengabeko bidaia pianoan



Erdu eta gozatu

LOIUKO



UDALA

Jaietan
euskaraz blai!





BATZOKI LOIU



Eguneko menua
Asteburuko menua
Menu bereziak
Bazkariak, enkarguz
Hamburgesak
Plater konbinatuak
Anoak
Otarkekoak

Abadetxe kalea, 8
LOIU
Tel. 94 612 95 35



URRATZEREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXIKIAK

Lehenengo markak • Preziarrik onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txerleri etorbidea, 25-3.N
48180 Loiu
T: 944 539 232
www.elekma.es



AGROLOIU

DENA BASERRIARENTZAT

946053450



Zabaloetxe et., 12 / 48180 LOIU

TURREGOITI

JATETXEA

Lauroeta etorbidea, 27
48180 Loiu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteturregoiti.com



Altzari

EBANISTERIA - CARPINTERIA, S.L.

Horma-armairuetan, Liburutegietan eta
Neurrira Eginutako Altzarietan Especialistak

Alain Pomposo Zarate
655 70 47 86

www.altzari.com
altzari@altzari.com

- Horma-armairuak
- Liburutegiak
- Neurritan Eginutako Altzariak
- Ateak eta Solairuak
- Oheburukoak eta Komodak
- Altzari Funtzionalak
- Erradiadore-estalkiak
- Bainugelak eta Sukaldeak
- Arotzeria oro har
- Erreformak

Belako Elkarteja mod. 203-2 - 48100 MUNGIA - Tel-Fax: 94 674 01 41



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Izarne Agirre, Jon Ander Rola, Jon Goikouria Larrabeiti, Guillermo Urkijo, Itxaso Zarate, Jose Angel Mentxaka, Bestorrene, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano
Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



diruz lagundutako aldizkaria



12 Kike Amonarriz, aurkezlea



22 Loiuko jaiak



26 Egin dezagun euskaraz eskolan!

- 4** Eritxiak
- 5** Laburrak eta albisteak
- 11** Irudietan... Mikel Lejona, baserritarra
- 12** Gurean izan da... Kike Amonarriz, aurkezlea
- 14** Gaztea eta... Sara Reyes, ekintzailea
- 16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
- 18** Josu Gallastegui, piano-jotzailea
- 22** Loiuko San Pedro / Santa Luzia jaiak
- 24** Txorierritarak, Kopako finalean
- 26** Egin dezagun euskaraz eskolan!
- 28** Aldaketak, Lezamako trenaren ibilbidean
- 30** Elkartek... Piperdun Flamenko Elkartea
- 32** Lastozko etxea
- 34** Teknologia... App berriak
- 35** Aikorrizketa... Hizkuntza ikasi edo bizi
- 36** Sukaldaritza
- 37** Denborapasa
- 38** Agenda



LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, beheia B 48150 SONDIKA 634 410 470
auzokidefincas@gmail.com

Txorierrri

Rocio Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
Maria Conde Bilbao
Ainhoa Rodriguez Mella

Mitxine 6, beheia - 48150 - Sondika (geltokilaren aurrean)
T.: 944 711 639 - Larmailak: 670 985 885 - www.txorierrri.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31



JON ANDER ROLA
(Irakaslea)

Orain dela hogeita hamar urte joan nintzen lehenengoz kopako final batera, Madrilera, Atlético Madrilera aurka, eta orduan ere galdu genuen arren, oso oroitzapen gozoa dut final hartaz: Zamudiotarrez betetako autobusean egindako joan-etorria, "plaza del Sol" delakoa athleticzalez gainezka, futbol zelaian egon zen giroa... Gogoan dut argi neukala hurrengo finalerara joango nintzela bai ala bai. Eta gainera, garai hartan ligak eta kopak irabaztera ohituta geun-

denez, ez zela denbora askorik pasatu beharko pentsatzen nuen. Baina askotan badakizue "ustek erdia ustel", urteak pasa eta finalik ez.

Baina 30 urte pasatu ondoren Bartzelonakora joateko posibilitatea izan dut. Izenburuan azaldu bezala, harrigarria izan da asteburu horretan bizi izan duguna: autopistako peajeak mukuru bete jendez, kantuka, edariak partekatuz, ko-txeetako klaxonak joz, auto guztiak zuri-gorritz jantzita, tapauka eta banderaz, Lleidako lehen zubian ikurrina eta esteladaz osatutako pankarta handia, Rambla zuri-gorria bertan zeuden *culeak* harrituta utziz, Athletic hiriko giroa eta jendetza, futbol zelairaino egindako kalejira, katalanekin bizi izan genuen harremana, bere animoak, begirunea eta afektua, ongi hartua eta maitatua sentitu naiz...

Azkenik, hitz batzuk esan nahi ditut, zelaian egon zen txistukadari buruz. Lehenengo eta behin esan ez dela gauza

berria, orain dela 30 urte ere ni nengoen lekutik ez zelako entzuten. Behin eta berri- ez esaten ari dira intoleranteak garela eta kirola politizatzen dugula. Zeinek politizatzen du gehiago txistu egiten duenak edo himnoa jartzen duenak? Erregearen presentzia bera ez da politizatzea? Bestetik nik ez nuen inondik inora intolerantziarik ikusi Espainiarekiko loturaren aurkako protesta xume bat baino. Esan behar da himnoa bukatu eta zero koma segundotara ahaztuta geneukala palkuan erregerik zegoen ala ez. Gure kezak zelaian zeuden kakanarru baten oinetan. Ez nuen iseka edo irainik entzun. Orain dela 30 urteko finalean Atletico Madrilera zaleak ikurrina bat erre zuten eta ez zen oraingoan beste iskanbilarik sortu.

Hurrengo finalerako proposamena dut: Espainiako himnoa jarri beharrean *Txoria txori* abestia jarri. Txistuak jaso beharrean, milaka ahotsezko koro batek la- gunduta egongo litzatekeelako.

Jubilatu gazteak

Gizarte baten etorkizuna ei dira gazteak. Gizarte honen iragana, oraina eta etorkizunaren zati handi bat, aldiz, nagusiak. Adinean aurrera egin eta gazte, indartsu eta lanerako gogotsu dabilta hainbat herritar "nagusi" gure inguruan: elkartegintzan, udalgintzan, txangoetan edo taberna buel- tan. Jubilazio garaia erretiro garaia omen da. Erretiroa? Zelako zama daukatena gainean: familia askoren sostengua dira, talde askotako partaide eta laguntzaile, lanean, aktiboak.



IZARNE AGIRRE
(Irakaslea)

Ez al da ba gurea alderantzizko gizar- tea? Umetan dena erdi egin ematen di- gute; gaztaroan, gazte izateagatik, erdi libre gara nahi dugunean egoteko edo ez egoteko, eta helduaroan konpromiso eta inplikazio fasea hasi eta apurka karga handitzen doa. Zorionez, Txiorierri- n, hain- bat gazte martxan ari dira, ametsak gau- zatu guran.

Baina gure jubilatuz gazteek ere amets egiten dute aldatu nahi dugun gizarte ko- loretsu batekin, eta ipar horretan bide la- gun ditugu. Azken finean, gaztetasuna la- nerako gogoan, ilusioan eta konpromiso- an dago eta ez hainbeste ispiluak erakus- ten dituen aldaketa fisikoetan.

Albaitaritza **HENAR ORTUONDO**
ALBAITARIA

Mikel Deuna Plaza
Tel.: 94 454 28 21
48160 Derio (Bizkaia)

DERIO

LARRIALDIK: 24 ordu
Tel.: 94 480 28 84
abonatua: 1815

Tel./fax: 94 452 06 64
Torrelaragoiti ind. P-7
48170 Zamudio (BIZKAIA)

Restaurante
JANA-JATETxea

Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak

BASALBEITIKO
TXAKOLINA

Bizkaiko Txakolina
Denominación de Origen

Bizkaiko Txakolina

Goititza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

Lagatzuk Euskal Jaia ospatuko du ekainaren 27an



Zamudioko euskara elkarteak prest du dena Lagatzu Eguna/Euskal jaia ospatzeko. Egun nagusia ekainaren 27a, zapatua, izango den arren, barikuan ere musika ekitaldi bat egongo da motorrak berotzen hasteko. Ekitaldia Fernan eta Natxo tabernen arteko plazan izango da.

Esan bezala, egun nagusia zapatua izango da. Zamudioztarrak txinatar kulturara hurbilduko dira eta goizean dragoi bat irtengo da kalejiran. Ekintza 10:30ean izango da Agirre Lehendakariaren plazan eta Gorbeia kaleko plazan. Ostean, ha-maiketakoa eskainiko da Kultura Etxeko

patioan, eta 12:00etan *Bizi gure kulturaren* abestiaren lipdub-a egingo da Arbolantxa eta Oiz kaleetan. Kale-jira-bira-dantza-poteoa ere egongo da eguerdian, Bertoko, Hiru Bai eta Gazte Alai taldeen eta bertsolarien eskutik, eta Leizaola Lehendakariaren plazan motor jokoak egingo dira, Zamudio Racing elkarteak antolatutik.

Herri bazkaria 15:00etan izango da eta bazkalondoa Taberna Ibiltariak eta bazkaltiarrek girotuko dute. Triki-zio taldeak amaiera emango dio egunari. Erromeria 20:00etan hasiko da.

IGO kanpainaren zozketa, Zamudion

Zozketa egin da "Irakurri, gozatu eta oparitu" kanpainan parte hartu duten zamudioztarren artean, eta irabazlea Leo Aurrekoetxea izan da. Irabazleak 30 euroko txartel bat jaso du, herriko liburutegian euskarazko liburu bat erosteko. Zozketa Zamudioko udal liburutegiaren erabiltzaileen artean egin da, eta ekainaren 30ean beste zozketa bat egingo da liburutegiatik pasatu direnen artean.

Pilotari gazteentzako ikastaroa, Lezaman

Lezamako Pilota elkarteak pilotari gazte eta hasiberrei zuzendutako ikastaroa egingo du irailean. Umeak adinaren arabera sailkatuko dira, eta datorren denboraldian zehar pilotaren oinarriak ikasteko aukera izango dute. Ikastaroak pilotari gazteak hezte du helburu, eta hori lortzeko, hainbat joko eta jarduera egingo dira. Besteak beste, gazteek esku biek pilotari ematen ikasiko dute eta bizkortasuna landuko dute. Gainera, kirolari lotutako baloreak irakatsiko zaizkie haurrei, hau da, elkertasuna, begirunea, lan gogorra.... Umeek ez dute ikastaroan parte-hartzeagatik ordaindu behar izango, baina ume bakoitzaren gurasoetako batek Lezamako Pilota Elkartearen bazkide egin beharko du. Informazioa gehiago: Ieltxu (666 16 32 92), Markel (636 81 40 27).

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurreazaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

GALAISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3. SONDIKA

IRATXO
gozotegia

tarta pertsonalizatuak
trufak
lelak
pastelak
pastak

Mikel Zarate, 2 - 3. lenja • Sondika, 48150 • 94 453 89 79

LIBRERÍA SONDIKA LIBURUDENDA
ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Preso baten familiaren bidaia, bideo batean

Sare elkarteak euskal preso, iheslari eta deportatuen giza esku-bideen alde egiten du lan, eta horren haritik *Nolakoak dira osaba ikusteko egin beharreko 2.400 km?* bideoa plazaratu du. Bideo horretako protagonista familia txorieritar bat da, Karlos Kristobal preso son-dikarrena, hain zuzen ere. Karlosek ia 20 urte daramatza espetxeratuta, Herrera de la Mancha kartzelan lehenago; eta Algecirasen, gaur egun, Cadizen, etxetik 1.200 kilometrora. Jorge Karlosen anaia da, eta bideoan hark eta bere familiak –Ainara emazteak, eta Beñat eta Peru semeek– Karlos ikusteko egin behar duten bidaia jaso da. Bideoa Youtube webgunean dago ikusgai.

Zamudio, BPG altuena duen herria

Euskal Estatistika-Erakundeak, Eustatek, jakinarazi duenez, Zamudio da biztanleko Barne-produktu Gordin (BPG) altuena duen herria Euskal Autonomia Erkidegoan (318.148 euro). Eustatek 2012ko datuak hartu ditu kontuan eta herrien zerrenda osatu du. Zamudioren atzetik, Olaberriak eta Zierbenak dute BPGrik altuena. Sektore-banaketari dagokionez, batez ere Teknologia Parkeko enpresa-jarduerarekin lotutako industriak (% 48,9) eta zerbitzuek (% 48,5) dute garrantzia Zamudion. Lehen sektoreak, aldiz, ez du pisu handirik. Era berean, zerrendaren laugarren postuan Loiu dugu (173.202 euro). Aurreko herrietan gertatzen ez den moduan, Loiuo ekonomiaren zati garrantzitsua zerbitzuen sektorean oinarritzen da (% 76).

Gaizka Peñafielek Josu Bergararen azken diskoan hartu du parte



Josu Bergara (Ea, 1979) kantautoreak disko berria grabatu zuen ekainaren 18an, Bilboko Kafe Antzokian. Diskoak *Kanta txikien indarra* du izena eta han Gaizka Peñafiel trikitilari lezamarrak hartu du parte. Gaizkak trikia jo du *Fandangoaren hotsa* abestian. "Izugarritzko ohorea izan da. Inguruan musikari eta pertsona bikainak izatea gozamena da eta dena errazten du. Publikoa ere lehen akordetik kontzertuan sartuta... gehiago ezin daiteke eskatu. Oso berezia izan da, zinez hunkigarria. Diskoa nola geratu den entzuteko irrikan nago. Eskerrik asko, Josu urrezko bizipen honengatik!", esan digu.

Diskoak zuzenean grabatu dute eta Gaizkarekin batera hainbat musikari ari-tu dira: Maria Rivero, Mikel Markez, Nerea Alberdi.... Kanta txikien indarra Bergararen laugarren diskoa da. Eakoak kontzertuak eman ditu Euskal Herrian zein Bartzelonan, Madrilan edo Londresen.

Aurpegi berriak, Udalbatzetan

Ekainaren 13an osatu ziren udalbatzak, eta ikusmin handiena Derion egon zen. Izan ere, bertan botorik gehien jaso zuen alderdia izan arren, EAJk ez zuen gehiengo osorik lortu udal hauteskundeetan. Hala, EAJk sei zinegotzi lortu zituen; EH Bilduk, lau; eta PSOEak, hiru. Azkenean, Esther Apraiz Fernandez de la Peña EAJko zerrendaburua izendatu zuten alkate, PSOEko hiru zinegotziek boto zuria eman baitzuten. EH Bilduk ere aurkeztu zuen bere hautagaia, Jose Angel Aurrekoetxea

Aperribai "Jatorra", eta lau boto eskuratu zituen. Beste alde batetik, Larrabatzun EH Bilduk irabazi zituen udal hauteskundeak, eta alkatetzan jarraituko du; alkate berria Iñigo Gastelu Bilbao da. EAJk alkatetzari eutsi zion Loiu, Sondikan, Zamudion eta Lezaman. Igotz Lopez Torre Zamudioko alkatea da berriz ere, eta Sondikan Xabier Zubiaur Agirrek hartu du makila; Josu Andoni Begoña Fernandezek, Loiu; eta Jon Ander Aurrekoetxea Artetxek, Lezaman.

ADARVE KAFETEGIA
Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA
Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Abelino Arraindegia
Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa
Txerri errotidea, 3-4
4113. bulegoa
48160 Derio
Telefonoa eta faxa
94 434 44 98
a.amondarain@euzaj.net

Herriko tabernak konfiskatzeko agindua berretsi zuen Auzitegi Gorenak



Espainiako Auzitegi Gorenak Auzitegi Nazionalaren erabakia berretsi zuen joan den astean eta 107 herriko taberna itxi eta enkantean ipintzeko agindua eman zuen, horien bidez ETA finantzatzeko zela argudiatuta. EFE agentziatik adierazi zenez, enkantearen mozkinak Altzor Publikoa-erentzat izango dira.

Erabakiak Derioko Txapela, Zamudio-ko Julemendi, Lezamako Oxangoiti eta Larrabetzuko Aretxabala herriko tabernetan du eragina. Oxangoitiko arduradunen ustez, epaia ezker abertzalearen kontrako erabaki politiko bat da. "Gerra Zibiletik hona egin den ondasunen konfiskaziorik handiena da; haren jarraipena. Hau guztioi dagokigun gaia da, abertzaleoi zein abertzale ez direnei, eta pentsatzen dugu erantzun bateratu bat eman behar dugula". Gogoratu dutenez, Oxangoitik 20 urte daramatza Lezaman euskararen eta kulturaren alde lanean. "Eta hori lapurtu di-

gute". Proiektua partikular askoren ekarpenari esker eraman da aurrera eta bertan sentsibilitate anitzeko lagunek eduki dute lekua. Aurtengo urtarrilean amaitu dute lokala erosteko mailegua ordaintzen. Ekaineko alea itxi orduko ez dugu jakin

tabernak ixteko agindua noiz beteko den. Oxangoitik zein Aretxabalatik esan digute tabernak zabalik egongo direla polizia judiziala horiek ixtera etorri arte. "Lokala herritarrona da eta gure asmoa taberna zabalik izatea da, posiblea den arte, behintzat", esan dute Larrabetzutik.

Bestalde, Julemendi eta Txapela itxita daude gaur egun. Deriotik adierazi digutenez, "hau beste eraso bat izan da gure kontra eta oso amorratuta gaude. Lapurreta bat da. Herrikoa ez da inoiz errentagarria izan; beraz, zelan bideratuko genituen irabaziak beste gauza batzuk ordaintzera?". Nahiz eta taberna itxita egon, Txoria elkarteak lokala erabiltzen du batzarrak-eta egiteko.

Auzitegi Gorenak bere erabakia jakinarazi eta kale-agerraldiak egin ziren herriko tabernei elkartasuna adierazi eta erabakiaren aurka protesta egiteko. Zarrutuz mobilizatzeraz ere deitu zuten eta Txorierritik bat egin zuten deialdiarekin. Era berean, ekainaren 27an mobilizazioak egingo dira herri guztietan.

Derio taldea, neska futbolari gazteen bila

C.D. Derio taldea 13 urtetik 15 urtera bitarteko nesken bila dabil, datorren denboraldian kadete mailako taldea osatzeko. Aurten, nesken talde bi izan dituzte senior eta gazte kategorietan. Lehenengo taldeak denboraldi aparta egin du eta Bizkaiko Kopa irabazi du. Hala ere, gazte taldea desagertu egingo da datorren urtean, jokalaririk batzuk senior taldera igoko dire-

lako, eta besteak gazteegiak direlako gazte mailan jokatzeko. Gazte taldearen ordez, kadete mailako talde bat sortu nahi dute klubekoek. Derio taldean batez ere neska txorierritarrek jokatzen dute, eta klubek neska guztiek Txorierrin bertan jokatu ahal izatea du helburu. Interesa duzuenok, telefono honetara deitu behar duzue: 608 68 58 08 (Julen).


Izpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA
Sabino Arana, 3 Iorja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - izpilen@gmail.com


Sabin Askolizaga
Aseguru agentzia
Allianz
609 473 746
Mibaina, 6 behean
48150 Sondika-Bizkaia
T.: 94 453 18 07
Faxa: 94 453 60 27

HORTZ - KLINIKA
Jasone Azurmendi Garai
Pakearen Plaza, 1 - 1º A
DERIO
Telefonoa: 944 543 705

Aldekoneko jaiak

Uztailak 25, zapatua. Santiago

- 11:00: Kalejira.
- 12:30: Meza.
- 13:30: Dantzen agerraldia, Lainomendi taldearen eskutik.
- 14:30: Paella Txapelketa. Paellak aurkeztea.
- 16:30: Mus "arin-arina".
- 17:30: Paella Txapelketa. Sariak banatzea.
- 18:30: Umeentzako tailerrak.
- 19:30: Tortilla Txapelketa. Tortillak aurkeztea.
- 20:30: Tortilla Txapelketak. Sariak banatzea.
- 21:00: Berbena, Raspu taldearekin.

Uztailak 26, domeka. Santa Ana

- 11:00: Kalejira.
- 12:30: Liturgia.

Uztailak 30, eguna. San Inazio

- 18:00:-20:00: Puzgarriak eta "fashion" tailerra.
- 20:30: Umeen Mozorro Txapelketan izena ematea.
- 21:00: Umeen Mozorro Txapelketa.
- 22:30: Umeen Mozorro Txapelketako sariak banatzea.
- 23:00: Berbena, Gora Herria taldearekin.

Uztailak 31, barikua. San Inazio

- 11:00: Kalejira.
- 12:30: Meza eta nagusientzako kopaua.
- 13:15: Nazioarteko folklorea: Raduga (Errusia).
- 19:15: Idi probak.

Auzoetako jaiak

Uztailan, Goitiotzako jaiak ospatuko dira Lezaman; eta Aldekoneko jaiak, Derion. Lehenengoak Goitiotzako jai-batzordeak antolatu ditu; eta bigarrenak, Derioko Udalak. Ekintza sorta zabala, kasu bietan. Hona hemen egitarauak:

Abuztuak 3, astelehena. San Esteban

- 12:30: Meza.
- 13:15: Herri kopaua.

- 14:30: Sukalki Txapelketa.
- 16:00: Mus "arin-arina".
- 20:00: Sariak banatzea.



Raduga taldea

Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldieta ikastarok
Aisialdirako landak - Apopilo zerbitzua
Sailto - Txangoak - Animalien heziketa

Telefonoa:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 39 • 48196 LEZAMA

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urbe 7, behea
48160 DERIO (Biskaila)

-Especialitate guztiak zentro bakar batean
-Aurriakentuz diuen
-Especialitatea: umeak

ASADOR ARAMENDI

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

Arteaga auzoa, 119
Tfnua.: 94 452 11 58
ZAMUDIO

**Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

Pentsu naturalak



Goitioltzako jaiak

Uztailak 10, barikua

- 18:00: Kalejira + txupinazoa.
- 18:30: Umeen parkea.
- 22:00: Disko festa, Oihan Vegarekin.

Uztailak 11, zapatua

- 12:00: Kurutze dantza taldearen emanaldia.
- 13:00: Paella Txapelketan izena ematea.
- 14:00: Paellak aurkeztea.
- 15:00: "Goitioltza en duro" txapelketa.

- 17:30: Igel-toka txapelketa.

- 22:00: Kontzertuak: Daltonarrak + Kartzarot + Gora Herria.

Uztailak 12, domeka

- 13:00: Bertso-txakolin dastatzea, Etxahun Lekue eta Arkaitz Estiballesekin.



150 gazte batu ziren Txorierriko Bertso Topaketan

a: Bertsozale Elkarte

Ekitaldia ekainaren 9an egin zen Sondikako Kultur Etxean eta bertan "Gu ere bertsoan" egitasmoan ibili diren Txorierriko bost ikastetxetako 150 umek hartu zuten parte. Ekitaldiak amaiera ederra eman zion aurtengo ikasturteari. Etxahun Lekue Etxebarria bertsolariak eta irakasleak zuzendu zuen.

Gaztetxoak taldeka igo ziren oholtzara eta ikastetxean landutako bertso-sortak abestu zituzten. Kantaldia ere egin zen eta ikasleek gainera, irakasleak eta udal teknikariak ere animatu ziren kantatzera. Horretarako, Beñat Aiartzeta gitarrajotzailearen laguntza eduki zuten. Aitor Arrutia Azkueta eta Ander Elortegi Garaatea bertsolariak bat-batean aritu ziren eta barrea eragin zieten gaztetxoei.

KIMAKO
Landarak
LANDARE APAINGARRIA
Goitioltza 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

Reformas Rivero
Especialitateak: igeltserotza eta pintura
Konpromisorik gabeko aurrekontuak
Azkarra, garbiak eta merkeak
luis_alberto_rivera_1984@live.com
t: 603 109 852

BOLALEKU
JATETXEA
Garaioltza, 1 - LEZAMA
94 455 41 10
Joratik Facebooken
• Hainbat menu
• Karla
• Ospakizunak
• BOLAPARK

GOXO-GOXO LOHTIZON
Arretzeldax zabalik
Ogile egutero
Pestalek onkarguz
Garaioltza, 77b
48196 Lezama
94 455 42 72
goxogoxolohitun@hotmail.com

LEJARRENE JATETXEA
Garaioltza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

Buru-gaixo kronikoa birgaitzea

Elena Rodríguez Seoane larrabetzuarra erizaina da eta buru-gaixotasunean dago espezializatua. Elenak bere laugarren liburua aurkeztu berri du: *Enfermería en la rehabilitación de la enfermedad mental severa*. Liburua profesionaleri, gaixoei eta haien senideei zuzenduta dago eta bertan azaltzen du zer den birgaitzea eta nola egiten den.

“Birgaitzea terapiako tratamendu metodoak eta teknikak erabiltzean datza, gaixoak berreskura ditzan galdutako trebetasunak. Segidako agerraldiak izaten direnean, narriadura bat sortzen da, eta birgaitzeak autonomia-maila zehatz bat izatea ahalbidetzen dio buru-gaixo kronikoari. Ez du sendatzen, baina bizikaltatea eskaintzen dio”, adierazi digu. Hala, gaixoaren egoeraren arabera, birgaitze mota bat edo bestea egiten da.

Besteak beste, buru-gaixotasun latza duen lagunak higie-ne-arazoak izan ditzake, apatia, eta besteengandik bakar-tzeko joera ere izan dezake. Birgaitzeak gaixoa bere ingurura ahalik eta baldintza onenetan itzultzea du helburu, eta horretarako, esparru ezberdinak lantzen dira. “Adibidez, narriadura kognitiboa bada, oroimena edo matematika arloan estimulatzeko dugu, kalkulua edo kontzentrazioa lantzeko probak eta ariketak egiten. Higie-nez eta arropaz arduratzen ez bada, arlo horretan ere berretzen dugu. Jateko aztura osasungarriak izaten ere irakasten diogu, sexu-hezkuntza ematen diogu... Musikaterapia egiten da, prentsa eta irakurketa tailerrak, erlaxatzeko tailerrak...”. Birgaitzea psikiatrak, erizain espezializatuak psikologoak edo terapiako monitoreak zuzentzen du, beharrezkoa den espezializazio-mailaren arabera. “Guk ohitura lantzen dugu, eta, eguneko zentro batean dauden lagunei dagokienez, goizean etxetik irten behar izatea lagungarria da horretarako, ulertzen zai-



tuzten leku batera joatea, zeinetan harremana duzun zu pasatzen ari zarena pasatzen ari diren beste pertsona batzuekin”.

Baliagarria

Osasun-tratamenduaz aparte, eguneko zentro bat edo tutoretzapeko etxebizitza bat zer den ere azaltzen da liburuan, eta familia eta gaixoa kezka ditzaketen gai juridiko batzuk ere batu dira: ezgaitzea, ospitalean sartzea, familia-eskubideak, ezkontza-krisiak, seme-alabak bisitatze-ko eskubidea edo lanerako ezintasuna, batzuk bakarrik aipatze-ko. Kapitulu hori Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazional-eko irakasleek (UHUN) idatzi dute.

“Lana trebatzeko eta informatzeko baliagarria izatea espero dut”, esan digu Elenak. “Liburuaren beste helburu bat ditugun baliabideak ez galtzea da. Nik baliabide horiek ezin hobeto ezagutzen ditut, esparru honetan lan egiten dudalako”. Horrela, bada, eta 30 urteko eskarmentua duela, Elena Rodríguez Seoane

*Osasun-tratamenduaz
aparte, gai juridiko
batzuk ere batu
dira liburuan*

Buruko Osasuneko Erizaintzan dago espezializatuta, eta Zamudioko Ospitale Psikiatrikoko errehabilitazio zerbitzuan egiten du lan. 1990. urtean Argia fundazio-ko eguneko ospitalearen sorreran hartu zuen parte beste lankide batzuekin.

Azken Liburu hau aurretik idatzitako beste liburu baten (Conocer la enfermedad mental) egokitzapena da, eta ikasliburua da “Buru Gaixotasun Larriaren Arreta eta Zaintzako Erizaintza” UHUN-eko unibertsitate-kurtsorako. Liburua Elkar liburutegian eskura daiteke, edo edozein liburutegian Díaz de Santos argitaletxera eskatuta.

*“Birgaitzeak autonomia-
maila zehatz bat
edukitzea
ahalbidetzen dio
buru-gaixo kronikoari”*



Mikel Lejona Begoña, Olalde baserritik (Sondika)

“San Juan gaua urteko bakarra da zeinetan nekazariek, uda hasierako belar luzeak ebaki, eta behar bezala sikatu ostean, etxe aurrean erretzen dituzten”.

Argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
www.atomikastudio.com

ziurtagiriaren elkartea **bai** euskarari

baieuskarari.org

Bai Euskarari Ziurtagiria,
alor sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiten

urrats biziak

[/baieuskarariziurtagiria](https://www.facebook.com/baieuskarariziurtagiria) [@baieuskarari](https://twitter.com/baieuskarari) www.baiesarean.org

MAYORISTAS INFORMATICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

RUBEN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Leizola plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 14 49

“Une erabakigarria da euskalduntze-prozesuan”

t: Gaizka Eguzkitza / a: EITB

Zelan Larrabetzuko saioa?

Oso gustura, betiko moduan Larrabetzun. Ekitaldi polita izan zen eta ostiral arratsalde batean hainbeste jende batzea euskarazko bakarriketa bat entzuteko benetan pozgarria da.

Hizkuntzari eusteko ahaleginak Larrabetzu bezalako herri euskaldunetan egin behar dira, ala batez ere leku erdaldunetan?

Leku guztietan jarraitu behar da lanean. Azken datuen arabera, euskararen arnaguneetan ere egin dute behera euskararen ezagupenak eta erabilerak. Larrabetzu bezalako herri euskaldunak oso garrantzitsuak dira, haiek direlako euskarari ondoen eusten diotenak. Horregatik, erantzukizun berezia dute eta dinamika aurrerakoia eta eredugarriak sortu behar dituzte. Herri erdaldunetan euskarak aurrera egiten badu, zonalde euskaldunetan gauza bera gertatu behar da.

Zein da gaur egun euskarak duen egoera Euskal Herrian?

Azken hamarkadetan aurrerapauso itzela eman du euskarak, baina batzuetan prozesua oso motela izan da. Batzuek botila erdi hutsik ikusten duten bitartean, beste batzuek erdi beteta ikusten dute. Ni Jon Sarasua idazlearekin nator bat: argi dago botila bete egin dela, baina zuloak ditu eta, ondorioz, jarraitu behar da betetzen; bestela, hustu egingo da. Metafora horrek adierazten du prozesu linguistiko guztiak dinamikoak direla, hau da, lortutakoa ez da betikoa; dena da aldatkorra, eta lortu dugun guztia hobe, gal edo manten daiteke, eta hori guztia gure esku egongo da.

KIKE AMONARRIZ | aurkezlea eta soziolinguista

Kike Amonarriz (Tolosa, 1961) batez ere telebistan egin-dako lanengatik da ezaguna, eta maiatzean Larrabetzura etorri zen bakarriketa bat egitera. Kikek umorea eta eus-kara izan ditu ardatz nagusi bere ibilbidean, eta horien inguruan hitz egin dugu.

“Euskarari dagokionez, lortutakoa ez da betikoa; lortzen dugun guztia gure esku egongo da”

Zeintzuk dira erronkak epe laburrean eta ertainean?

Euskaraz hazi eta hezi diren neska-mutilak gaur egun guraso bihurtzen eta lan munduan sartzen dabiltza, eta horregatik, une erabakigarria da euskalduntze-prozesuan. Hurrengo hamarkadan lortu behar dugu euskara gai nagusia izatea Euskal Herriko agenda sozio-politikoan, eta erabilerari dagokionez, aurrerapen nabarmenak lortu behar ditugu esparru guztietan.

Eta gazteek? Zelan egiten dute euskaraz?

Gazteek eta haurrek, helduek eta nagusiek baino askoz gehiago egiten dute euskaraz. Gaur egun gazteek duten erabilera-maila azken hamarkadetan egon den altuena da. Gazte euskaldun gehienek familia erdaldunengandik datoz eta zonalde erdaldunetan bizi dira. Egoera horrek



erronka berriak ekartzen dizkigu: eskola ezinbestekoa da, noski, baina eskolak bakarrik ezin du, eta inguruan bidaiariak eta lankideak behar ditu: eskolatik kanpoko jarduerak, familiak...

Hainbat esparrutan aritu zara lanean. Haien arteko lotura, euskara?

Bai. Gazte-gazte nintzela, Tolosako lehenengo euskara elkartearen hasi nintzen lanean, gero Tolosako Udaleko Euskara zerbitzuan... Eta geroago, telebistan, gauza bera. Baina euskara ez ezik, umorea ere ez dut inoiz baztertu.

Euskal filologia ikasi zenuen, eta horrek oso serioa ematen du. Nondik datorkizu kutsu komikoa?

Ez da erraza jakiten. Txikitan euskal udalekuetara joaten nintzen. Behin Oto, Poto eta Pototo pailazo hernaniarrekin egin nuen topo bertan, baina Oto ez zen egon, eta niri esan zidaten Otorena egiteko. Horrek nire bizitza markatu zuen. Geroago, Argia aldizkarian hasi nintzen txisteak idazten. Horren haritik, txiste-afariak ekarri genituen Iparraldetik, eta ni ere animatu nintzen txisteak kontatzera. Horrela, umorea nire bizitza publikoaren ardatz bihurtu zen.

Euskaldunok ez omen gara oso komikoak...

Nork esaten du hori? Umoreari buruz emandako hainbat hitzalditan galdera bera egiten dut: "Euskaldunak serioak ote gara?". Eta normalean jendeak baietz dio. Orduan, beste galdera bat egiten dut: "Eta nor baino serioagoak gara?". Eta salbuespenik gabe, % 100ek erantzuten dute andaluziarrak baino serioagoak garela. Horrek zalantza handi bat sorrazten dit: munduan 7.000 hizkuntza, 200 Estatu eta 10.000 herri eta etnia badaude, zergatik aipatzen ditugu andaluziarrak? Topiko hutsa da. Egia da euskaldunok oso gutxitan landu dugula umorea literaturan, ahozotasunean... Gaur egun, aldiz, umorearen esparrua izugarri zabaltzen ari da.



Txiste-kontalaria

Kike Amonarriz *Zeruko Argia* aldizkarian hasi zen umorezko artikulua idazten. Horrez gain, txiste liburuak eta kaseteak egin zituen Joxerra Galarraga eta Guillermo Seguiolarekin. Gainera, soziolinguistika abiapuntutzat hartuta, hainbat hitzaldi eman ditu eta artikulua asko idatzi ditu. Era berean, eskarmentu handia dauka telebistan. Horra "ustekabea" heldu zen. "Geu ginen txisteak euskaraz kontatzen zituzten bakarrak". Harrezkero, zenbait saiotan hartu du parte aktore, gidolari edota aurkezle lanetan: *Hitz eta Pitz, Hau da A.U., Balinda, Bai zera, Txiskola...*

2006tik 2013ra bitartean *Mihiluze* saioa aurkeztu zuen Illaski Serranorekin batera. "Lan-talde ederra genuen eta nik uste dut saioak marka utzi duela. *Mihiluzen* agerian utzi genuen euskaraz eta euskararekin jolastu ahal

dela, eta gure hizkuntzak izugarritzko aberastasuna duela", esan digu. Gaur egun *Tribuaren berbak* saioan dabil lanean. "Nire bizitzan zehar jasotakoaren erakusleihoa da. Saiatu gara euskararen inguruko saio dinamiko eta erakargarria egiten. Saioak harrituta utzi gaitu, konturatu garela zenbat jende dagoen euskararen inguruan lan egiten, gogo eta ilusio handiz".

Iaz ikastolek 100 urte bete zituzten eta, horren haritik, Kikek dokumentala egin zuen. "Ikastolek garrantzi handia izan zuten eta urratzaileak izan ziren. 60. hamarkadan hainbat gurasok seme-alabei euskara hutsezko irakaskuntza emateko erabakia hartu zuten. Eta hori ez zaie inoiz behar beste eskertuko. Gaur egun euskarak bizi duen berreskuratzearren zati handi-handia ikas-tolei esker gertatu da".

Jatetxea SAN ISIDRO
EUSKO OKILETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERKO GOZOGINTZA AFARTA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK
Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala
Telefonoa 94 454 07 98
Fax 94 454 14 18
Mungia etorbidea, 25
48160 DERIO

Nire Autoocasion NA
IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobilak: 686 97 05 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

harategia - urdaitegia
MIGUEL
ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA

Mikel Deuna, 7 * DERIO 48160 * T: 454 52 94

“Burrukatzeko gogorik gabe, ez zara halako saltsetan nahasten”

SARA REYES PEQUEÑO | ekintzailea

Goitioltza Lezamako auzoraino hurbildu gara eta bertan laster zabalduko dauan proiektuaren barri emon deusku Sarak: Solazpi zaldi-zentroa. Zaldi-terapia ardatz nagusitzat eukiko dauan zentroa izango da. Gazte lezamarra buru belarri dabil azken ikutuak emoten.



t/a: Itxaso Marina

Zaldi-zentroa hilabete gitxi barru zabaltzeko moduan egongo zara. Pozik, urduri, estresagaz....?

Pozik. Batzuetan aurrera egiten ez dozula sentitzen dozu eta pentsetan dozu: Non sartu naz, benetan! Izan be, paper asko egin behar dira, jente askogaz berba egin, akordioak lortu... hau edo bestea faltetan dala... Behar handia da eta gauzak hasieratik egin behar dira ondo. Egin beharreko inbertsinoa be oso handia da. Baina ilusiorik eta burrukatzeko gogorik ez badozu, ez zara halako saltsetan nahasten, ziur. Nik urte bi daroadaz kontu honegaz.

Eta zu, zelan nahastu zinan abentura honetan? Krisi testuinguru baten, gainera.

Sei urte nituanetik nago zaldi-munduari lotuta eta gaur egun desgaitasuna daukien ume eta personakaz egiten dot behar Hípica Aretxalde Zalditegian, Lezaman. Zaldi-terapia egiten dot beste neska bategaz. Besteak beste, haur hezitzailea naz eta laster zaldiketa-kirol teknikariaren titulua aterako dot. Itzel gustetan jat umeakaz behar egitea, zaldi-terapia zerbait barria da... Beraz, pentsau neban: zergaitik ez biak buztartu eta, gaur egun beharra topetea gatxa dala kontuan hartuta, neure zaldi-zentroa martxan ipini? Gainera, benetan laguntzea behar daben umez gabilz, eta era polit bat da hareei laguntza hori emoteko.

Zer eskainiko dozu?

Jarduera nagusia zaldi-terapia izango da. Umeak-eta nira etorri ahalko dira

saioak egitera, baina zaldiak zentroetara eroateko aukerea be eskainiko dot. Bestalde, zalditegi batzuk alokairuan ipiniko dodaz, zaldia daukiene animalia bertan itxi ahal izateko, eta gura dauana zaldi gainean ibiltzen ikastera etorri ahalko da, pasieran ibiltera... Umeentzako urtebetetze jaiak antolatzea be pentsau dot... Dana dala, hau martxan ipini eta aurrera egin ahala ikusiko dogu, ea zerbitzu gehiago eskaintzeko aukerarik dagoan.

Suerte handia euki dozu, lurra Lezaman bertan topau dozulako.

Bai. Gainera, leku ezin hobea da zaldi-terapia egiteko, oso nasaia dalako; ez dago arriskurik eta errekea daukagu hurbil.

Beharretan zabilze orain; kontau zer topauko dogun Solazpi zaldi-zentroan, hori inauguraten danean.

Pista bi egongo dira, boxak, noria bat zaldiak ibili daitezkan, parkinga... Hasiera baten, zaldi bi eukiko dodaz zaldi-terapia egiteko; eta beste lau, ibiltera etorri gura dabenentzat. Gero gerokoak.

Zuk zeuk esan dozu lehen: inbertsinoa handia, hau guztia martxan ipinteko.

Bai, oso handia, baina zaldi-terapia gauza erabat ezbardina da eta uste dot arrakastea eukiko dauala. Zentroak ondo funtzionau eta inbertsinoa berreskuratzeara espero dot.

Gaztea eta ekintzailea; laguntzarik euki dozu?

Laguntzak egon badagoz, baina topau behar dira. Nire negozio motari jagokonez, egia da laguntza gitxi dagoa, baina inportanteenak eskuratu dodaz,

“Zaldi-terapia gauza erabat ezbardina da eta espero dot arrakastea eukitea”



*“Beharrik ez badago,
onena da bakotxak
bere lanpostua
sortzea; zalantzarik ez”*

europarrak, eta beharretan ipinitakoa amortizatu ahaliko dot, behintzat.

Beste hipika zentro baten zabilzala kontau deuskuzu. Lehiakideak izango zarie?

Ez, ez. Ni hareen laguna naz, kidea... Bakotxak gauza ezberdinak eskainiko ditu eta bezeroek euren beharrianetara

ondoen egokitzen danarengana joko dabe. Dana dala, zaldi-terapia guk hareei eskaini geuntsen gauzea da, eta ez dauka zerikusirik hipika-zentroaren jarduera nagusiagaz.

Zaldi-zentroa zabaldu arte, ez dogu jakingo gauzak zelan urtengo diran; halanda be, beste gazteak animauko zeunkez euren negozioa marxtan ipintera? Merezi dau?

Bai, zalantza barik. Beharrik ez badago, onena da bakotxak bere lanpostua sortzea. Gainera, gauzak ondo bajoakuz, langileak hartu eta lanpostuak sortu ahaliko doguz. Nire kasuan, esate baterako, persona bi behar dira: bata, zaldia gidatzeko, neu; eta beste bat, saioa zuzendu eta terapia egiteko.

Zaldi terapeutikoak

Antxinakoek baiekien zaldi gainean ibilteak onurak ekartzala, eta historian zehar hainbat aitamen egin dira zaldiketarik dituan onura fisiko eta emozionalen gainean. Oraindino oso ezaguna ez dan arren, zaldi-terapia orain dala urte asko erabiltzen da gaixotasun fisiko eta neurologiko batzuk tratatzeko. Sarak garun-paralisia daukien ume eta pertsonak egiten dau behar. “Ez daukiezan trebetasunak hobetzen eta garatzen laguntzea da helburua. Egia da batzuk ezin izango dirala hobetu, baina gitxienez lortuko dogu atzera egin ez dagie-la”. Normalean, eta gaixo bakotxaren beharrianen arabera, ordubeteko saioa egiten da astean. “Zaldia bero handia emoten dauan animalia da, eta hori oso inportantea da, gure gorputzak beroa behar dau alako. Era berean, oso mobimendu nasaia dauka, eta, ondorioz, arintasunez mobidu ahal gara. Gainera, zaldi gainean ibilteko, jarrera egokia euki behar da. Orekea hobetzen da, koordinazioa...”



Unitateak: Ibaia Kalea, 1
48160 - DEIRO
Tel.: 94 403 40 60
Fax: 94 403 40 61
info@txorierri.net
www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO BATXILERGOAK

LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- * Mekanizazio teknika
Erdi mailako zikloa (2 ordu)
- * Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi-mailako teknika
Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- * Produzioaren Programazio teknika
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- * Ingurumen-Heziketa eta Kontrola goi-mailako teknika
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- * Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi-mailako teknika
Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- * Telekomunikazio- eta Informatika-Sistemetako goi-mailako teknika
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- * Salmenten kudeaketako eta Merkataritza Arloetako goi-mailako teknika
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

194 partaide, Mihiluze Txapelketan

Txorierriko Mankomunitateak aurtenera Mihiluze txapelketa antolatu du 5 eta 6. mailan dabiltzan neska-mutilentzat. Programa honek gaztetxoek eskola orduetatik kanpo euskaraz hitz egitea, euskaraz gozatzea eta hizkuntza lantzea dauka helburu nagusizat. Laugarren edizioa izan da aurtengoa eta inoiz baino ume gehiagok eman dute izena. Horiek horrela, 2012 urtean 114 umek hartu zuten parte, 2013 urtean 130ek, 2014an 188k eta 2015ean 194 gaztek.

Apiriletik ekainera kanporaketak eta finalurrekoak egin dira Txorierriko ludoteketan eta lehia gogorraren ondoren finalera Larrabetzu, Derio eta Zamudioko bikoteak heldu dira. Finala, ekainaren 5ean egin da Derioko Kultur Birikan, eta Kike

Amonarriz izan dugu gure artean aurkezle lanak egiten.

Aurtengo edizioan Larrabetzuko bikotea geratu da lehenengo, Deriokoa bigarren eta Zamudiokoa hirugarren. Hiru bikoteek familian disfrutatzeko bidaia jaso dituzte: lehenengoak Madrilerako

Warnererako bidaia, bigarrenak Nafarroako Senda Vivara eta hirugarrenak Donostiara, hain zuzen ere.

Honetaz gain, finalera heldu ez, baina herri mailan lehenengo geratu diren bikoteei ere diplomak banatu zaizkie. Zorionak irabazleei eta baita txapelketan parte hartu duten ume guztiei ere!



Osasunaren lasterketa batutako diruaren banaketa

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak Osasunaren aldeko lasterketa/martxa antolatu zuen apirilean. Ekintzari esker batu zen dirua Bizkaiko Elikagaien Elkartarekin kolaboratzen duten Txorierriko sei elkartei eman diete joan den ekainaren 3an. Orotara, 2.410 euro batu ziren eta dirua erabiltzaile-kopuruaren arabera banatu da elkarteen artean. Hala, Derioko Elikagaien Elkartea Solidarioak 1.045,29 euro jaso du; Lezamako Hirugarren Adinekoen Elkartea, 155,62 euro; Sondikako Gorantzaileak taldeak, 437,79 euro; Loiuko Danontzat elkarteak, 289,51 euro; Zamudioko Lagunandre elkarteak, 289,51 euro; eta Larrabetzuko Gure Etxea elkarteak, 192,61 euro.



Tabakoaren Maketa Lehiaketa

Txorierriko Mankomunitateko Eskuhartze Komunitarioko Zerbitzuak Tabakoaren Maketa Lehiaketa antolatu du bigarren aldiz. Lehiaketa Tabakoaren Aurkako Munduko Egunaren ospakizunen haritik egin da. Eskola guztietako 6. mailako ikasleek, maiatzean, tabakoari dago-kionez jasaten duten talde presioari aurre egiteko tailer bat jaso zuten. Tailerraren helburua, tabakoaren kontsumoa saihesteko, ikasleei, ezagutza, gaitasunak eta giza baliabideak ematea izan da, pertsona bakoitzaren iritzia eusten jakiteko teknikak praktikan jarri. Landutako edukiak hauek izan dira:

- Tabakoa. Jatorria eta osagaiak.
- Tabakoaren kontsumoak eragiten dituen osasun arazoak.
- Tabako kontsumoaren motibazioak.
- Talde presioa.
- Ez erretzearen abantailak.

Tailerra jaso ostean, ikasleek, maketak egin dituzte, eta horiek maiatzaren 25etik ekainaren 8ra arte ipini dira ikusgai osasun zentro guztietan. Epaimahaia 13 pertsonak osatu dute eta maketa bakoitza nongoa den jakin gabe eman dute botoa.

Aurtengo irabazleak Zamudioko herri ikastetxeko ikasleak izan dira. Sari banaketa pasa den ekainaren 12an egin zen eta Lander Aiarzak, Txorierriko mankomunitateburuak, Forestal Park Bilbao-Akarlandara joateko txeke eta diploma bana entregatu zien Zamudioko 23 ikasleei.

FRIEDREICH-EN ATAXIA OSATZEKO

Gaixotasun neurodegeneratiboa, etengabe hondatzen dituen zerebeloa eta bizkarrezkur ganglioak.

UTZI HEMEN, MESEDEZ, PLASTIKO ZURRUNEZKO TAPOIAK

LOIU: UDALETXEA (Herriko plaza, 1)

SONDIKA: ARTEBE KIROLDEGIA (J.A. Agirre Lehendakaria, 39)

DERIO: KULTUR BIRIKA (Anboto Plaza, 5)

ZAMUDIO: UDALETXEA (Sabino Arana Plaza, 1)

LEZAMA: UDALETXEA (Aretxalde Auzoa, 1)

LARRABETZU: UDALETXEA (Askatasunaren Enparantza, 1)



"Pianoan hunkitu nahi dut"

t/a: Gaizka Eguzkitza

Zelan hasi zinen musikan?

Aita txistularia zen eta musikarako izugarrizko zaletasuna zuen. Eta berak sartu ninduen musikan. Hasiera ez zitzaidan gehiegi gustatzen, baina denboraren poderioz, musika nire pasio bihurtu zen. Bilboko kontserbatorioan hasi nintzen ikasten eta bitartean elizan jotzen nuen organoa. Garai hartan deitzen zidaten Txorierriko eliz batzuetatik organoa jotzeko hiletetan eta abarretan. Zortzi urte nituela hasi nintzen organoa jotzen eta 12 urte nituenetik bizimodua ateratzen dut. 1959an, 17 urte nituela, bukatu nuen kontserbarioan, eta bertan karrera-amaierako lehenengo saria irabazi nuen.

Eta gero Venezuela joan zinen...

Bai, argi nuen musikaria izan nahi nuela. Derion aitite eta izekoarekin bizi nintzen, gurasoak Venezuelara lan egitera joan zirelako nik 10 urte nituela. Nik hemen ez nuen musikaria izateko aukera handirik, eta pensatu nuen agian han bai izango nuela... Venezuelan irakasle on batekin ibili nintzen eta kontzertuak ematen hasi nintzen. Musikari dagokionez, Derion batxilergoa egin nuen eta Hegoamerikan, unibertsitatea.

Zelan zen Derio txikitán?

Txikia. Garai hartan 1.000 biztanle baino ez zituen. Txikitán futboleko baino ez genuen jokatzeko. Ez zegoen beste gauza bat egiteko. Orain konturatzen naiz nolako garrantzia duen inguruak, hau da, zein lekutan hazten zaren, zure baliabideak garatzeko. Hemen ez zegoen ezer artei dagokienez. Nire gurasoek Venezuelara lehenago eraman banindute, askoz lehenago hasiko nintzatekeen ikasten eta orain baino piano-jotzaile hobe izango nintzatekeen.

"8 urte nituela hasi nintzen organoa jotzen eta 12 urte nituenetik bizimodua ateratzen dut"

JOSU GALLASTEGUI | piano-jotzailea

Bere izena ez da oso ezaguna, baina Josu Gallastegui piano-jotzaile ederra da, munduko onenetariko bat gaur egun, batez ere balletean. Derion jaio zen, baina Venezuelan eta Estatu Batuetan landu du bere ibilbidea. Gaur egun Madrilén eta New Yorken artean bizi da.

Nolako bizimodua egiten zenuen Venezuelán?

Puerto La Cruz herrian bizi nintzen, Caracasetik 300 kilometrotara. Han bost urte eman nuen. Garai batean egunero joaten nintzen hiriburura eskolak hartera. Guztira 16 ordu ematen nuen autobus batean oihanean zehar joan-etorriko bidaia egiteko. Azkenean Caracasera joan nintzen bizi izatera eta bertan 15 urte eman nuen. Zorionez, Caracasen oso irakasle amerikar on bat lortu nuen eta berarekin izugarri ikasi nuen. Garai har-

tan hasi nintzen kontzertuak ematen munduan zehar. Bizitza erraz bat eramaten nuen Venezuelán, baina beste helburu batzuk nituen, urrats bat haratago eman nahi nuen. Caracasen ez nuen, dantza mailan, piano-jotzaile lehiakiderik.

Eta horregatik joan ziren Estatu Batuetara...

Bai, 1980an erroka berrien bila joan nintzen New Yorkera. Eta ailegatu bezain pronto, hainbat lan atera zitzaizkidan. Haietako bat dantza-eskola batean izan zen, eta han Mijail Barishnikov dantzari

Atsedunik onena, zure bigarren etxebizitzan ere bai

Delux lo egin, zoriontsu esnatu.

SUITE DELUX
MARKA EKLSIBOAK, ATSEDENERAKO

SUITE DELUX .com

DERIO | LEIOA
Derio Gernika 94456147
Leioa Gernika 944316315

*"Jotzen dudanean,
ondo pasatzen dut,
eta nire gozamina
entzuten didatenei
helarazi nahi diet"*

eta koreografo eta Rudolf Nureyev dantzari handiak ezagutu nituen. Haiekin lan egiteko aukera izatea nire karrerarik punturik altuenetariko bat izan zen.

Gaur egun Madrilén bizi zara...

Tira, Madril eta New Yorken artean. 1992an kontserbatorioko irakaslea izateko plaza bat eskuratu nuen Espainiako Kultura Ministerioan. Dena dela argi nuen, New Yorken lan egiten jarraituko nuela. New York arteetako munduko hiri-burua da eta oso gustura nabil han. Eta erretiroa hartu dudanez, batzuetan Madrilén eta beste batzuetan New Yorken ibiltzen naiz. Espainian erretiroa hartzen duzuenan baztertu egiten zaituzte, baina nik lanean jarraitu nahi dut, bai horixe! New Yorken nahi beste lan daukat, eta kontzertuak eta ikastaroak ematen ditut, eta noski, dantza-eskoletan pianoa jotzen dut, akonpainamendua egiten dut.

Zure ibilbidea batez ere da nabarmena akonpainamendua egiten balle-tan. Zelan sartu zinen mundu horretan?

Piano-jotzaile gehienak hainbat esparrutan ibiltzen dira. Oso nekez bizi ahal da bakarrik kontzertuak ematen. Caracasen gonbidatu ninduten dantza eskola batera, eta handik aurrera gero eta ospe handiagoa hartu nuen. Piano-jotzaile askok ez diete akonpainamenduari behar bezala garrantzirik ematen, baina ni ez nago ados. Eskola batean pianoa jotzen dudanean, kontzertu bat bezain garrantzitsua da, eta ahalik eta mailarik altuen erakusten saiatu behar duzu. Pianoa jotzen dudana bakoitzean, ondo pasatzen dut, eta nire gozamina entzuten didatenei helarazi nahi diet.

Eta hori da bereizten zaituena?

Bai. Sentimenduak helarazi nahi dizkiet entzuten didatenei, hunkitu nahi ditut. Jendeak galdetzen dit: "Josu, kon-tuan izanda onenetariko bat zarela, zer-

*"Barishnikov eta
Nureyev dantzariekin
lan egitea nire karrerarik
punturik altuenetariko
bat izan zen"*

gatik jarraitzen duzu ikasten, etengabe?". Eta nik beti erantzuten diet heltzea erraza dela, baina mantentzea, aldiz, izugarri zaila. Eta goi-mailan mantentzeko, ikasi behar duzu egunero-egunero. Harro nago, denbora luzean ibili naizelako goi-mailan. Ikastaroak ematen ditudanean, ez diet teknikarik erakusten, ezta dantza-ri lotutako ezagupenak ere. Nik interpretatzea eta erreperitorioa irakasten dizkiet. Izan ere, jotzeko era baduzu edo ez duzu, ezin da irakatsi, ezin da ikasi.

Zein da zure karreraren lorpenik handiena?

Harro nago, adituek esaten dutelako gaur egungo piano-jotzailerik onenetariko bat naizela.

Munduan zehar ibilia zara pianoa jotzen. Kontzertu edo aretoren bat duzu gogoan bereziki?

Oro har ez dut memoria onik kontzertuetarako, baina bereziki bat daukat gogoan, orkestra batekin lehengo kontzertua eskaini nuenean, alegia. Caracasen, 1972ko martxoaren 7an izan zen. Garai hartan nire bizitzako ametsa zen. Oso berezia izan zen eta gaur egun grabaketa etxean daukat gordeta. Entzuten dudana bakoitzean, ezin dut sinistu hori neu naizela. Miresten dut nire ausardia eta nire lasaitasuna. Harrezkero emandako kontzertuetan lehenengo horretan bezain lasai ibili banintz, askoz urrunago helduko nintzatekeen.

Diskoak ere argitara eraman dituzu...

Bai. Nire emazteak animatu ninduen. Lehenengoa geldirik gabe grabatu nuen (kar, kar). Gaur egun, ordea, atalka, edo kantaka grabatzen dira. Lehenengo diskoa 1988an grabatu nuen eta izugarritzko arrakasta izan zuen. Nahiko lotsatia izan naiz beti eta inoiz ez dut nire burua bes-teen aurrean aintzat hartzen jakin. Guztira 10 disko inguru grabatu ditut,



baina ezin dut bakar bat aukeratu. Ba-koitzak badu bere xarma. Harrotasunez, esan behar dut nik neuk aukeratu nituela kanta guztiak.

Azken diskoak *Bihotz barnetik doinuak* du izena eta euskal kantak jorrazten dituzu...

Bai. Disko hori egiteko irrikian nengoen, nire bizitza osoa bertan dagoelako. Azkenak bat egiten du aurreko diskoarekin *A journey home*, etxerako bidea. Nire haurtzaroaren kantez osatzen dituzte diskoak, aitzak erakutsitakoak. Oso hunkigarriak dira niretzat.

Badago bete ez duzun helbururik?

Bai, nire estudio propioa edukitzea gustatuko litzaidake. Horrela, nik nahi dudanean, eta ez estudio batek edo disketxe batek esaten dutenean, grabazioak egingo nituzke. Batzuetan hitzordua duzu estudioan eta grabatu behar duzu, estudioa alokatzea garestia delako. Baina grabaketarik onenak egiten dira, barrenak eskatzen dizulako, eta hori ez da egunero gertatzen. Arthur Rubinstein piano-jotzaile poloniar handiak esaten zuen berak dena jarraian grabatu nahi zuela eta eskatzen zuen bitartean inork ez molestatzea. Batzuetan akatsak zeuden, baina ez zuten garrantzirik, interpreta-tzea zoragarria zelako.

Amaitzeko, bitxikeria bat. Izen euskalduna duzu, zelan moldatu zara Estatu Batuetan?

Aitzak Josu izena jarri nahi zidan, baina garai hartan ezinezkoa zen eta Jesús María jarri zidan. Eta Venezuelen Jesús esaten zidaten. Hala ere, Estatu Batuetara ailegatu nintzenean aldatzea erabaki nuen, eta Josu berreskuratu nuen. Izan ere, han judutarrak dira nagusi eta Jesús testuinguru horretan ez zitzaidan batere aproposa iruditu. Ingeleseztan ere, Jesús, izenak ez du batere ondo jotzen. Abizenarekin ere arazoak dituzte Estatu Batuetan (kar, kar), eta beti hitzez hitz esatea eskatzen didate.



Ibilbidea

Josu Bilbon jaio zen 1942an. Aita Soraluzekoa zen eta ama, Deriokoa. Txikitan Bilbon, Soraluzen eta Derion bizi izan zen. Aitzak musikan sartu zuen eta Josuk pianoa ez ezik, txistua eta akordeoia ere jotzen ditu. "Venezuelan euskal etxekoek deitzen zidaten eta izugarriko jaiak egiten genituen (kar, kar...)", esan digu. Venezuelan goi-mailako ikasketak egin zituen, baita Estatu Batuetan ere, Indianako Bloomingtoneko Unibertsitatean, hain zuzen ere.

Estatu Batuetan bizi zela, bertan hazitako emakume frantzes batekin ezkondu zen eta berarekin alaba bat izan zuen. "Alaba aktorea da eta Los Angelesen bizi da. Nik aukera eman nion berak nahi zuena egiteko. Nik hasi nintzen pianoa irakasten, baina borroka pilo bat izaten genituen (kar, kar); beraz, beste irakaste batekin lan egin zuen berarekin. Nire ustez, sentsibiltate handiko neska da, baina ez zuen gogor lan egiteko gogoia adierazi; berarentzat pianoa zaletasuna baino ez zen".

Josuk 14 disko plazaratu ditu eta horiek www.josuonline.com webgunean daude salgai. Gainera hainbat



Josu, Maya Plisetskaya dantzariarekin, 2008an.

saiotan hartu du parte munduan zehar eta zenbait orkestrarekin aritu da. Josu solista ibili da askotan, baita akonpainamendua egiten balleten. Esparru horretan munduko dantzari, koreografo eta konpainia onenenetarikoekin egin du lan: Mijail Barishnikov, Rudolf Nureyev, Maya Plisetskaya, Julio Bocca, Ballet Amerikarraren Antzerkia, Ballet Amerikarraren Eskola, Mexikoko Ballet Independientea... Adituek eta profesionalak aintzat hartzen dute Josuren lana: "piano-jotzaile bakarra da", "sormen handiko musikaria", "urrezko atzamarrak", "pianista bikaina", "artista ederra"....

Inprimatu zure posterra
airetik ateratako Bizkaiko argazki onenekin
Pilo bat daukazu aukeratzeko



www.bizkaiadesdeelaire.com

Sar zaitez zure eskaera egiteko

9,32€
-tik hasita
BEZ barne



Alkarteak, jaietako bizkarrezurra

Nobedade moduan, jaiak Herriko plazan zentralizauko dira aurten eta bertan karpa bat eta txosnak ipiniko dira. Zapatu gauean doako garraioa egongo da, Txorierrirako zein Bilborako

a: Loiuko Udala

Ekainaren 26tik 30era bitartean, San Pedro eta Santa Luzia jaiak ospatuko da-bez Loiun. Ohikoa dan moduan, herritar guztiei zuzendutako egitarau oparoa antolatu da Udaletik. Halan, bost egunean zehar, adin eta gustu guztientzako ekitaldiak egongo dira bertan: kirola, dantzen agerraldia, antzerkia, erromeria, gastronomia txapelketak, umeentzako ekintzak, kontzertuak, herri kirolak... "Herritarrek jaietz gozatea eta jaietz harro egotea dogu helburu nagusitzat", esan deusku Jon Andoni Begoña Loiuko alkateak. "Era berean, jai interesgarriak prestau gura izan doguz, Txorierrirako eta Bilbo Handiko lagunak be Loiura hurreratu daitezcan. Jarduerok erakarrita, jenteak gure herrira etorteak eragin zuzena eta positiboa eukiko dau ostalaritzan eta merkataritzan".

Loiuko jaiak hiru nobedade garrantzitsu ekarriko deuskuez aurten. Lehenengo eta behin, herritar askoren aspaldiko eskarea beteko da eta Udaletxeko plazan karpa bat ipiniko da lehenengoz. Gainera, jaiak plazan zentralizauko dira eta, karpa horretan alkarteek euren txosna jarriko dabe. Bestalde, aurreko urteetan doako garraioa egon da zapatu gauean, Loiuko eta Txorierrirako arteko joan-etorriak egiteko. "Zerbitzu horrezaz gainera, kontzertuak amaitu eta Bilbora itzultzeko doako garraioa be egongo da aurten. Izan be, jakin badakigu garraio publikoa ezinbestekoa dala jaiak behar diran moduan garatu daitezcan". Su Ta Gar eta Vendetta taldeak eszenatokia igongo dira zapatu gauean. "Adin-tarte guztientzako jarduerak antolatzeke helburuagaz jarraitzen dogu, baina batez be gazteentzat. Horreei entzun eta gure esku egon dan guztia egin dogu euren gustuko taldeak ekarteko".

Kontzertuen maila handia eta zapatu gauean doako garraioa egotea dira, hain



Vendetta taldea. a: Guillermo Urkijo

Ekainak 26, barikua.

Txupinazo Eguna

- 15:00: Gazte bazkari herrikoia, Herriko plazan. Loiuko Bakarrak gazte alkarteak antolatua.
- 18:00: Pala finalaurrekoa, frontoian. IRTXAN taldeak antolatua.
- 19:00: Pala II. finalaurrekoa, frontoian. IRTXAN taldeak antolatua.
- 20:00: Pregoia irakurtzea, Danontzat alkartearen eskutik. Ostean, V. Kartel Lehiaketaren saria emotea.
- 20:15: Goialde dantza taldearen emonaldia.
- 21:30: Kale antzerkia, Deabru Beltzak taldearen eskutik.
- 22:30: Erromeria, Egan taldeagaz.
- 23:00: *Hawai party*, Loiuko Bakarrak gazte alkarteak antolatua.
- 02:30: Dj.

Ekainak 27, zapatua.

Paella Eguna

- Goizean zehar umeentzako puzgarriak egongo dira.
- 10:00: XI. Paella Txapelketea.
- 11:00: Haurren marrazki Lehiaketea, kirol pistan.

Jai-egitaraua

- 11:30: "Txorierrirako jolasak" Gazteen pintxo Lehiaketea. Txorierrirako Mankomunitateak antolatua.
- 12:00: Haurren herri jolasak eta Moltos motorren VI. Txapelketea, kirol pistan.
- 14:00: Paellak aurkeztea.
- 14:00: "Txorierrirako jolasak" Lehiaketaren sariak banatzea.
- 16:30: Apar jaia.
- 18:00: XI. Paella Txapelketaren sariak banatzea.
- 18:30: II. Mus Txapelketea, Herriko plazan. Loiuko Bakarrak gazte alkarteak antolatua.
- 18:30: Kontzertua: Five Direction. Paellen zelaian.
- 23:00: Kontzertuak: Su Ta Gar + Vendetta.
- 03:00: Dj Ibai Sanchez.

Ekainak 28, domeka.

Herri Kirol Eguna

- 11:00: Kalejirea.
- 11:00: Txitxi-burruntzia, Loiuko Bakarrak gazte alkarteak antolatuta.

zuzen be, Loiuko jaietako erakarguneetarikorik bat, Begoñaren ustez. Beste Paella Txapelketea da. "Loiuko, Txorierriko eta Bilbo Handiko beste udalerririk batzuetako herritarrek txapelketan parte hartzerak hurbiltzen dira eta jai-egun ederra pasetako aukerea izaten dogu". Paella Txapelketea zapatuan izango da eta ha egiten dan zelaia be egokiro atonduko dira.

Harmonian eta alaitasunez

Loiun ez dago jai-batzorderik eta jai-egitaraua Udalak berak prestaten dau. Halanda be, Udaletik herriko taldeek eta alkarteek egiten daben beharra azpimarrau gura izan dabe. "Jaietako bizkarrezurra dira eta jarduerak dinamizatu egiten dabez". Loiuko Bakarrak gazte alkarteak, esate baterako, gazteentzako herri bazkaria antolatu dau barikurako, txupinazoa bota baino lehen. Bazkariak 10 euro balio dau eta izena emotea bide honeetarikorik baten bidez egin behar da: 695 78 61 16 telefono zenbakira deituta, edo loiukobakarrak@gmail.com helbide elektronikora mezua idatzita. Beste ekintza batzuk be antolatu dabez, halan nola *Hawai party*-a, txitxi-burruntzia eta Mus Txapel-



ketea. IRTXAN taldeak Pala Txapelketea prestatu dau bariku eta domekarako, eta astelehenean herrian igaz gertatutako jazoerarik aitagarrienak batu dituan pelikulea emongo da. Pelikulea Loiuko Lastana alkarteak egin dau. Li Karate Loiuko taldeak

Su Ta Gar eta Vendetta taldeak eszenatokira igongo dira zapatuan

eta Doyan Yeol taekwondo klubak erakustaldia eskiniko dabe astelehenean be bai. Azkenik, Gure Etxea nagusien alkarteak kontzertu txiki bat eta bazkaria antolatu ditu martitzenerako, eta egun horretan be, arratsaldean, idi-probak egongo dira Larrakoetxe herri kirol alkartearen eskutik. Idiak J. Arteagoitiak, Cotarelok eta De la Concepción anaiek eroango dabez.

"Bai gure herritarro, bai txorierritarroi Loiuko jaietan parte hartzeko gonbitea egiten deusuegu, harmonian eta alaitasunez. Hainbat gauza izango doguz, sukaldaritza txapelketak, maila handiko kontzertuak, txikientzako jarduerak, adinekoentzako dantzarako musikea... Bost egun iraungo daben jai ederrak, azken baten. Besoak zabalik hartuko zaituegu".



- 12:00: Mezea.
- 12:30: EASO abesbatzearen emonaldia.
- 13:00: Pelota partidak.
- 15:00: Herri bazkaria (bakotzak bere janaria eroan beharko dau).
- 16:30: V. Padel Txapelketearen finala.
- 17:00: Pala Txapelketearen 3. eta 4. postuak. IRTXAN taldeak antolatua.
- 18:00: Pala Txapelketearen finala. IRTXAN taldeak antolatua.

- 18:30: Tor magoa.
- 20:00: Korrontzi folk taldea.
- Ekainak 29, astelehena.**
- San Pedro**
- 12:00: Mezea.
- 12:30: Organu kontzertua, eleizan.
- 18:00: Lo más destacado del año pasado Loiuren gaineko pelikulea. Loiuko Lastana alkartearen eskutik.
- 18:45: Li Karate Loiuko taldearen erakustaldia, Herriko plazan.
- 19:00: Tortilla Lehiaketea, Udaletxe inguruko landetan.
- 19:30: Doyan Yeol taekwondo klubaren erakustaldia.
- 20:00: Dj Xaibor.
- 21:00: Tortillak aurkeztea, Udaletxeko eskaileretan.
- 21:30: Tortilla Txapelketearen sariak banatzea.
- Ekainak 30, martitzena.**
- Santa Luzia**
- 11:00: Kalejireia.
- 12:00: Mezea.
- 12:30: Kontzertua eleizan: organua eta klarineta.
- 13:00: Aurreskua.

- 13:00: Kontzertu laburra, Iñaki Basaberren eskutik. Gure Etxea nagusien alkarteak antolatua.
- 14:30: Nagusien bazkaria, Gure Etxea nagusien alkarteak antolatua. Ostean, bilbainadak, Iñaki Basaberren eskutik.
- 16:30: IV. Dantza Lehiaketea.
- 17:00: Haur parkea.
- 19:00: Idi-probak, Larrakoetxe herri kirol taldeak antolatua.
- 20:00: Erromeria, Lotxo taldeagaz.
- 21:00: Txokolatadea.
- 22:00: Pantxikori agur esatea.



Athletic Clubek Kopako finala jokatu zuen maiatzaren 30ean, Bartzelonan. Talde zurigorriak maila eskasa eskaini zuen partida osoan zehar eta 3-1 galdu zuen Bartzelonaren kontra. Kataluniarrak argi eta garbi nagusitu ziren berdegunean, baina harmailetan zein kaleetan zaletu zurigorriak jaun eta jabe izan ziren. Zaletuak Athleticen jokariak baino askoz finago ibili ziren, bai horixe! Bartzelona Euskal Herriatik 600 kilometrora egon arren, milaka eta milaka athleticale abiatu ziren Kataluniako hiriburura, eta agerian utzi zuten talde bilbotarrarekin duten fidelotasuna ez duela mugarik. Marea zurigorri horretan hainbat eta hainbat txorieritar murgildu ziren eta maiatzaren 30ean jai-eguna egin zuten: batzuk Bartzelonan bertan, eta beste batzuk, etxean edo txokoan. Guztiak, lagunekin batera. Zuetako batzuek egun berezi horren argazkiak bidali dizkiguzue, eta hona hemen adibide batzuk.

Beti zurekin!



a: Mónica Díez (Sondika)



a: Alex Martín (Lezama)



a: Belén Gana (Loiu)



a: Oihana Astobieta (Loiu)



HARATEGIA

ALBERTO

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

Alaia

fruta-denda

Etkez etxeko zerbitzua
Bertoko produktuak

Taller, 5
48170 Zamudio
94 455 05 81



Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

Zerbitzu BERRAK
Logopedia
Podologia
Kiropraxia

**clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika**

Txarrenti ibarribidea, 9 - Laga | Arriaga enklina | 48180 DERIO
94 454 01 01 | 637 79 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com



a: Pablo Lezkano (Larrabetzu)



a: Joane Aurtinetxe (Zamudio)



a: Unai Ibarra (Asua)



a: Gentzane García (Derio)



a: Oihane Larrea (Sondika)



Egin dezagun euskaraz eskolan!

Zamudioko eskolako neska-mutilak itsasoa zeharkatu duten pirata ekologistak izan dira ikasturte honetan. Baita kobazuloz kobazulo erratz gainean ibili diren sorginak ere. Baina pirata eta sorgin euskaldunak izan dira, eskolan euskararen erabilera bultzatzea helburu duen egitasmo baten barruan egin direlako ekintza horiek. Egitasmoa orain dela 10 urte ipini zen martxan lehenengo aldiz.

t: Itxaso Marina / a: Zamudioko eskola

Eskolan sartu gara, eta piraten leizean gaudela pentsatu dugu. Hormetan, ateean... edonon ikusi ditugu piraten irudiak eta marrazkiak. Ikasleen argazkiak harri-patuta dauden arma-sare handi bat ere ikusi dugu. "Euskararen sareak harri-patu egiten gaituela adierazi nahi du arma-sareak", azaldu digute Karmele Errekatzok eta Marijo Dañobeitiak. Irakasleak izateaz gainera, hizkuntza normalkuntzako proiektuaren arduraduna da Karmele, eta Euskara batzordeko kidea, Marijo.

Euskararen normalkuntza proiektua eskolaren ardatza da eta, horren haritik, duela 10 urte hasi ziren euskararen erabilera bultzatzeko kanpainak antolatzen. Ikasturtean zehar bi egiten dituzte. "Ikasleak oraingo ikasleen herenak ziren orduan. Euskara gutxi entzuten genuen haien artean, eta pentsatu genuen halako ekintzak pizgarriak-edo izan zitezkeela haien artean. Egia esan, eta batzuetan gora-beherak dauden arren, kanpaineak ondo funtzionatzen dute eta euskararen erabilera areagotu egiten da". Zamudion D eredu dago, eta halako kanpainak antolatu

beharra izatea bitxia iruditu zaigu. Hala ere, ikastetxe asko daude egoera horretan. "Umeek sei ordu ematen dituzte eskolan, eta egunaren gainontzeko orduetan harreman handiagoa badute gaztelaniarekin, bada, azkenean eskolan ere izaten du horrek isla". Euskara eskolatik kanpoko harremanetarako hizkuntza izatea ere inportantea da, beraz, eta horretarako, hartu-emanetan daude herriko zenbait eragilerek; Lagatzu euskara elkar-tearekin eta udal liburutegiarekin, haien artean. "Identitate-sentimendua lantzea ere garrantzitsua da. Euskara zure hizkuntza dela barneratzea eta hura maitatzea".

Txikientzako eredua

Kanpainak era ludiko batean egiten dira eta ikastetxe osoak hartzen du parte bertan: ikasleek, irakasleek zein jantokiko langileek. "Ikasgela bakoitzari pertsonaia bat dagokio, kasu honetan pirata bat, eta irudizko ibilbide bat egin behar dute. Horma batean, bost kontinenteak marraztu ditugu eta, batetik bestera pasatzeko, proba bat gainditu behar dute". Zamudioko piratek bost proba gainditu behar dituzte guztira; esaterako, material birziklatua erabiliz jostailuak egitea eta

Kanpainak era ludiko batean egiten dira eta bertan ikastetxe osoak hartzen du parte

mural bat pintatzea. "Baina eskolako eremu guztietan euskaraz egitea da inportantea; euskaraz egiten ez badute, ez dira hurrengo kontinentera pasako".

Kanpainaren gaia eta egin beharreko probak eskolako curriculumari lotuta daude. Hala, erabiltzen dira plastikozko lanak, matematikako ariketak edo musika ekintzak egiteko, ahozkoasuna lantzeko edo elkarbizitzaren inguruko gaiak aztertzeko. "Horman mapamundia dugula aprobetxatu dugu, esate baterako, eta herrialdeek dituzten arazo ekologikoez mintzatu gara".

Bosgarren eta seigarren mailetako ikasleen ardura da kanpainak eta haien barruko ekintzak gainerako ikasleei aurkeztea. Antzezlanak prestatzen dituzte



Adituak gonbidatzen dituzte eskolara, euren esperientzia parteka dezaten ikasleekin

kizuna prestatzen du, eta guraso elkarteak zein jantokiko langileek ere zerbait antolatzen dute. Oso ondo pasatzen dugu”.

Zamudioko eskolan 300 ume inguru daude. “Lan handia egin behar da hau guztia martxan ipintzeko. Baina pozik gaude, emaitzak benetan positiboak direlako, adibidez, beheko mailetan lortzen da umeek % 100ean euskaraz egitea, eta eskolako ikasle, irakasle zein langile guztiok inplikatzeko garelako proiektuan”. Irudizko pertsonaia bat ere badute, Pantxika, ikasturte hasieran umeak bisitatu eta euskaraz egitera animatzen dituen.

Amaitu berri da aurtengo ikasturtea, eta hurrengoan ere piratak izango dira Zamudioko ikasleak. Izan ere, eskola-egutegi estua izan dute eta ezin izan dira kontinente guztietara heldu. Hori lortzen dutenean, beste gai batean murgilduko dira eta abentura berriei helduko diete. Euskaraz.

horretarako, dantzaren bat, bertsoak... Eskola apaintzea ere haien ardura da eta gelaz gela pasatzen dira kanpainaren balorazioa egitera eta ikasgela bakoitzaren egoera zein den azaltzera. “Txikia-goek euskaraz egiten ikusten dituzte eta inportantea da hori, haien artean eredu direlako”. Bariku batzuetan, eskaileretako batzarrak egiten dituzte zikloka eta, era asanblearioan, komunean jartzen dituzte kanpainen gorabeherak eta ikasgela bakoitzak egindako lana eta aurrerapenak.

eta liburutegiaren arduradunekin, eta, beste irteera batzuen artean, hauek bisitatu dituzte: Urdaibaiko Bird Center, Ekainberri, Madariaga dorrea, Kutxaespazioa, Bengola Natur Energia eta Basque Culinary Center.

Aurten, piratek aboratu dute ikasturte amaierako jaia. “Amaiera bikaina ematen diegu kanpainei. Lan kooperatiboa egiten dugu eta, esate baterako, eszenatokia guztion artean atontzen dugu. Ikasgela bakoitzak bere dantza edo ikus-

300 ume

Gaiaren arabera, eskolara pertsonaia ezagunak edo adituak ekartzeko ahalegina egiten dute, euren esperientzia parteka dezaten ikasleekin. “Adibidez, sukaldaritza landu genuenean, Eneko Atxa izan genuen eskolan, eta Oihane Ziordia zamudioztarra ere etorri zen, txokolatzeko trufak egiten irakastera. Unai Ugalde fisikariak Unibertsoari buruz hitz egin zigun, eta Urko Torrek falkoneria erakustaldia eskaini zuen”. Eskolaz kanpoko ekitaldiak ere antolatzen dituzte. Horrela, bada, tailerrak egin dituzte Lagatzuko kideekin



Bilboko metrotik gertuago

Bilbo eta Lezamaren arteko trena 1895eko maiatzaren 30ean sortu zan, eta harrezkero erreferentzia izan da bailaran. Gaur egun, esate baterako, gazteek Derioko institutura joateko erabiltzen dabe, eta nagusiek, Bilbora, behar egiteko edo erosketak egiteko. Ekainaren 1ean lanak hasi ziran trenbidean eta horreek betiko ibilpidean aldaketa batzuk ekarteaz gainera, Bilboko metrora hurbilduko dauz txorierritarak.



t/a: Gaizka Eguzkitza

Bilboko metroaren 3. linearen azken fasea eraikitzeak beharrak ekainean jarri dira martxan. Eusko Jaurlaritzak trena eta metroa lotzen dauzan geraleku bat egingo dau Alde Zaharrean. Gainera, tunel barri bat eraikiko dau Matiko eta Olaren artean. Beharrek 18-22 hilabete iraungo dabe, eta epe horretan erabiltzaileek moldatu beharko dabe. Beharrak amaitzen diranean, txorierritarrek gertuago eukiko dabez Bilboko metroa eta Durangorako eta Bermeorako trenbidea. Gainera, geltokiak eta trenak barriztuko dira. Aldaketek erabiltzaileengan izan eikean kaltea ahalik eta gehien murrizteko, bailarako alkateek trenaren erabiltzaileen kezka jaso ebezan eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak batu ziran.

Trena betiko moduan dabil Lezamatik Sondikaraino, baina erabiltzaileek bertan topetan dabe aldaketarik nabarmenena. Lehen, trena zuzenean abiaten zan Sondikatik Olara eta Matikora bidean, Alde Zaharrera ailegau arte. Bidaiaiek 30 minutu emoten eben lehen, trenean ibilpide osoa egiteko. Gaur egun, oster, Eus-

kotrenek Sangroizeko geraleku zaharra berreskuratu dau eta trena Sondikatik Lutxanako geltokira heltzen da. Han, bidaiaiek trenaz aldatzen badira, Bilboko metroko sarera sartzeko aukera daukie. Lezama-Lutxana-Alde Zaharra egiteko, bidaiaiek 40 minutu emoten dabe gaur egun, izan be, Lutxanan bost minutu itxaron behar dabe, metroa hartzeko. Bestalde, arazoak murrizteko, tren bat gehiago ibiltzen da orduro 07:00etatik 10:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Bariku gauetan be indartu da zerbitzua.

Bilbora joateko beste aukera bat dago: Sondikara joan, trenaz aldatu eta Lorurira abiau. Lehen, trena Alde Zaharre-raino heltzen zan, baina gaur egun, Matikon bukatzen da ibilpidea. Izan be, beharrak dirala-eta, Zazpi Kaleetako eta

Loruriko geltokien arteko zatia itxi behar izan da. Zortzi hilabete barru, Sondika-Matiko zati hori be itxiko da, eta beharrek 2016ko Gabonetarako amaitzea espero da. Beharrak dagozan bitartean, trenaren orde, autobus bat jarriko dabe, bidaia-riak Sondikatik Lorurira joan ahal izateko. Orduro autobus bat aterako da.

Gakoak

Ibilbidea:

–Trena Lezamatik Lutxanaraino doa, eta han bat egiten dau Bilboko metroagaz.


–Gaur egun Sondikatik Lorurira trenaz joateko aukerea dago, baina zortzi hilabete barru autobusa hartu behar izango da.

Prezioa:

–Txorierritik bertatik bakarrik ibiltzen diranei Barik txartela erabiltzea komeni jakie.

–Bilbora joaten direnak “Bono10 Konbinatua” atera beharko dabe.

Beharrek 18-22 hilabete iraungo dabe eta epe horretan erabiltzaileek moldatu beharko dabe



Treanean dagozan aldaketek eragina dabe Zamudio herria eta Teknologia Parkea lotzen dauzan autobus-zerbitzuan. Asite egunetan, zazpi autobus ateraten dira Zamudiotik, 7:24tik 9:27ra bitartean. Era berean, Parketik 11 autobus ateraten dira 16:05etik 19:40ra bitartean astelehenetik eguenera. Barikuetan, lau autobus ibiltzen dira 13:10etik 14:40ra bitartean.

Prezioak

Ibilpidean ez ezik, prezioan eta bidaia-txarteletan be egon dira aldaketak. Euskotrenek bidaia-txartel barri bi ateratu dauz ohiko zerbitzua etenda dagoan bitartarako, eta egungo garraio txartelagaz batera dagoz indarrean. "Bono10 Konbinatua" izenekoagaz hamar bidaia egin ahal dira Txorierri eta Lutzana eta Bolueta

arteko edozein geltokiren artean. Bidaia bakoitxak euro bat balio dau. Era berean, tarifa murriztuak dabezan pertsonak "Bono10R Konbinatua" eskuratu ahal dabe. Kasu horretan, bidaiaaren prezioa 0,60 eurokoa da.

Halanda be, prezioei jagokenez, ñabardura batzuk egitea komeni da, erabiltzaile bakoitxak normalean egiten dauan ibilpidearen arabera. Txorierrietik bakarrik ibiltzen direnak, adibidez, Derioko instituturara joaten direnak, 82 zentimo ordaintzen dabe, Barik txartela erabili ezker. Lehen, ostera, euro bat balio eban bidaiak. Bestalde, Txorierrietik Bilbora joaten direnak euro bat ordaintzen dabe bidaia bakoitxeko, "Bono10 Konbinatua" erosten badabe; baina 1,45 euro, Barik txartela erabiltzen badabe. Lehen 1,46 euro balio eban. Hi-

labeteko bonoetan be badagoz prezio desbardinak: txartel konbinatuak 36,4 euro balio dau gaur egun, eta lehen, 52 euro; eta 30 gazte txartelak 29 euro balio dau gaur egun, eta lehen, 22,6 euro.

Ana Isabel trenaren betiko erabiltzailea da. Egutero joaten da Bilbora ikastaro bat egitera. "Deustura joaten nazenez, ondo jatorkit trenbidearen ibilpidearen aldaketak, lehenago heltzen nazelako. Halanda be, beste leku batzuetara joateko, txarragoa da, esate baterako, Ezker-raldera". Pello gazte zamudioztarra, aldiz, ez dago batere pozik aldaketakaz. "Ni Moyuara joaten naz eta nahaste-borraste handia da, trenez aldatu behar nazelako. Gainera, denpora gehiago emoten dot trenean eta txartela, hilabetekoa, garestiagoa da".

HARAGITEGIA
URDAGITEGIA
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TLFNOA: 94 454 10 75
DERIO
Eskerrik asko
etortzeagaitik

INSTITUTO BELLEZA

Golkio kalea, 2
(sarrera Erdiko kalea)
Derio 48160

Marimar
94 454 13 64
670 022 794
marimarggg@yahoo.es

enviser

Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak | Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa | Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Astintze kalea, 6-A, 1. solairua, 48.340 Derio
TEL. 94 424 38 34



t: Itxaso Marina / a: DAT

“Eskarmentu handiagoa duten herriko elkarteek gu babestu eta laguntzea nahi genuen, eta jende askorekin ipini ginen harremanetan”, kontatu digu Vanesa Vallek. Vanesa elkartearen kideetarikoa bat da, eta flamenko irakaslea ere bada. “Datak direla-eta, batzuek ezin izan zuten ekitaldian parte hartu, baina beste asko prest azaldu ziren laguntzeko: Tximintx, Sutondoan, Doyan, Lainomendi, DAT... Oso erraza izan zen haiekin lan egitea eta oso gustura ibili ginen, oso pozik. Lainomendirekin, euskal dantzen eta flamenkoaren arteko fusioa eta guzti egin genuen! *Arin-arin piperdun* deitu genion”. Aurkezpen bizia izan zen eta, besteak beste, karatea eta poesia uztartu ziren dantzarekin. “Batzuei berehala pasatu zitzairen denbora, ekitaldiak ordubete eta erdi iraun zuen arren!”.

Vanesak betidanik eduki du flamenkorako zaletasuna, baina herritik kanpo joan behar izan zuen sevillanak dantzatzeko ikastera; Portugaletera hain zuzen ere. “Derioztar batzuek komentatu zitaduten haiek ere ikasi nahi zutela eta hasi nintzen haiei eskola ematen. Denboraren poderioz adierazi zitaduten beste urrats bat eman eta dantzatzeko ikastetik harago joan nahi zutela, eta elkarte bezala eratzea erabaki genuen. Helburua da geuk ere ekarpena egitea herria girotzeko. Kanpora ateratzea dantzatzera, jendeak ikus gaitzala eta, gurekin, izugarri gustatzen zaigun gauza batez goza dezatela”.

Gatz eta piperra

PIPERDUN DERIOKO FLAMENKO ELKARTEA

Piperdun Derioko Flamenko Elkarte orain dela hila-bete pare bat aurkeztu zen jendaurrian. Jaioberriek herriko beste elkarteekin laguntza eduki zuten ekitaldian, eta kontatu diguten moduan, haiek ere parte-hartze aktiboa edukiko dute herriko bizitzan.

tela”. Izen egokia topatzea ez zen batere erraza izan eta denbora luzea eman zuten han eta hemen begiratzen, euskara hiztegian, interneten... “Bihurrikeria, grazia, pikante... adierazten zuen izenen bat nahi genuen, eta apur bat kostatu zitzaigun arren, topatu genuen azkenean: Piperdun. Izan ere, hemen giro ezin hobea daukagu”.

Alegriak

Piperdun flamenko elkarte 40 bazkidek osatzen dute eta 12 flamenko-dantzari daude bertan, umeak zein nagusiak. “Gauza erabat ezberdinak egiten dira,

*“Kanpora atera nahi
dugu eta jendeak,
gurekin, izugarri
gustatzen zaigun gauza
batez goza dezatela”*

jakina. Umeekin, esate baterako, musika alaiak, mugitzera bultzatzen dituztenak, erabiltzen ditugu. Musika horiek nagusiekin ere erabiltzen ditugu, noski, baina dantza serioagoak ere egiten ditugu. Batez ere sevillanak dantzatzeko ditugu eta oraintsu beste koreografia batzuekin hasi gara, hala nola runbak eta alegriak”. Vanesaren esanetan, flamenkoa dantzatzeko ikastea ez da zaila, “gogoa izatea da gakoa. Apur bat gidatzea bezalakoa da: hasieran gauza asko ikasi behar dira, baina gero moldatzen zara eta instintiboagoa da”. Hala ere, onartu du bere konplexutasuna ere baduela. “Beno, pausoak buruz ikasteaz gainera, musika ulertu eta hartara moldatu behar duzu, pauso bakoitza aldi edo konpas bati dagokiolako. Eta horretan belarri ona ala



*"Eskaintza handitu
nahi dugu eta dantzez
gainera, perkusio,
txalo... tailerrak
antolatu"*

*"Gustatuko litzaiguke
gutxienez urtean
behin ekintza
bat antolatzea"*

txarra izateak badu bere eragina... baina azkenean irmotasuna izatea da, eta musika asko entzutea".

Entseguak Kultur Birikan egiten dituzte zapatuetan; eta Larrabbarri base-rrian, domeketan. Ordubete eta laurdeneko entseguak izaten dira. "Badago jendea entseguak astean zehar egiteko interesa duena. Taldea osatuz gero, bada, aukera gehiago". Herriko taldeek Piperdun proiektuarekin bat egin dutela argi gelditu zen aurkezpen ekitaldian. Vane-saren ustez, taldeak gainontzeko herritarren artean ere edukiko du harrera ona. "Gu ezagutzen doazen heinean, nik uste dut animatuko direla. Gainera, gure eskaintza handitu nahi dugu eta perkusio

tailerra antolatu, txalo jotzen ikasteko beste tailer bat, koru bat osatu... Flamenkoa oso zabala delako. Horrela, bada, gerta daiteke batzuei dantzatzea ez gustatzea; baina gitarra, kutxa, zotzak... jotzea, ordea, bai. Eta horiek ere gurean lekua izatea nahi dugu".

Aktiboak

Piperdun elkarteko kideek herriko bizitzan parte-hartze aktiboa izateko asmoa dute, eta horretarako, ahalegina egingo dute beren errepertorioa osatzen. "Gustatuko litzaiguke gutxienez urtean behin ekintzaren bat antolatzea. Era berean, prest gaude herriko beste eragile eta taldeekin lan egiteko. Laino-

mendi dantza taldekoek, adibidez, deitu egin digute beraien 25. urteurrena ospatzeko ekitaldian *Arin-arin piperdun* dantza errepikatzeko, eta batzokikoek ere gonbidatu gaituzte beraien ekitaldi batean parte hartzera. Inauterietan ere bat egin genuen dendarien elkarteak antolatutako ekintzarekin".

Interesa duenak elkartearekin ipini ahal da harremanetan piperdunelkar-tea@gmail.com helbide elektronikora mezua bidalita. "Edozein lagun etor daiteke taldera, edozein adinetakoa, emakumezkoa zein gizonezkoa, eskarmen-tua duena eta ez duena, sasoiari dagoe-na zein hain ondo ez dabilena... Guztiak ondo etorriak zarete. Animatu!".

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikusiak, orokorrean
Auzokoen kumintzenak
Mantentzeko garbi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Oliniko enbaitako garbiketa
Ikastetxeak
Zabon bilaketa

Besaide Plaza, 1 - B° Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

GOIZALDE

PELUKERIA
ESTETIKA

94 455 81 44

Angulu 2, beheko Larrabetzu-Bizkaia

SARRIKOLA
OGITEGIA

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK

Lasai

Luis M° Asensio
Terapeuta naturopata

Larrabbarri, 1 lortza - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatiolasai@gmail.com

LEIRE BEGOÑA

ULEAPAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai jarraitu Facebooken



TXORIERRI MARMOLDEGIA
Sukalde eta bainugeletako harriak
Fatxadak • Atariak • Hilerriak
Torrelarragoiti ind., 7 B P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

LEANDRO LANDETA



HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

TRUIUONDO ZAMUDIO
ZENTRO GERIATRIKOA



Torrelarragoiti ind. P-6
48170 Zamudio
94 657 55 00
www.naguspea.es

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 08
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBAITARITZA
Nerea Pedrosa Cde. 517
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15



Lastozko etxea

Zamudion, etxe bat egin dute material horretako moduluak erabiliz

Etxe horretan Andoni Arrieta eta haren familia bizi dira. Andonik nekazaritza ekologikoan jarduten du eta, azaldu digunez, etxe ekologiko batean bizitzea da logiko eta koherenteena. Lastozko etxeak ohikoak dira Ipar Europako herrialdeetan, eta Andoni eraikuntza horietan oinarritu da bere etxea egiteko orduan. "Estatuan lastozko moduluak erabiliz eraiki den lehenengo etxea da gurea. Hala ere, ez da Estatuko lehenengo lastozko etxea, aurretik beste batzuk egin direlako; Bizkaian, adibidez, hiru daude".

Lastozko modulu edo panel industrializatuak Andoniren lagun baten enpresan egin dira, Gasteizen. Panel horiek isolamendua hobetzea ahalbidetzen dute, eta energia-kontsumoa % 90 mu-

rriztea. "Etxeko horma guztiak lastozko panelekin egin dira. Panelak karez estali dira, etxearen kanpoaldetik zein barrualdetik. Kareak hezetasunetik babesten du lastoa, eta fungizida ere bada. Beraz, lastoa egoera onean mantenduko da urteetan. Ipar Europan, esate baterako, badira ehun urte baino gehiago duten horrela-

*Lastozko panelek
ahalbidetzen dute
isolamendua hobetzea
eta energia-kontsumoa
% 90 murriztea*



ko etxeak". Panelek 50 zentimetroko lodiera dute. "Etxe barruan aldaketarik gabeko tenperatura mantentzen da, kanpoan eguraldia edozein ere dela; 19-21 gradu artekoa. Bestalde, kareaz gainera, hormak buztinez ere estali ditugu barrualdean. Buztinak inguruaren hezetasuna mantentzen du: hezetasun handia badago, hura absorbatu egiten du; eta hezetasun txikia badago, askatu egiten du".

Prozesu erraza

Etxeko teilatuak ere merezi du aipamen berezia. "Egurrezkoa da. Gainean, kortxo naturala ipini dugu, eta haren gainean, xafla iragazgaitz bat. Eta xaflaren

"Ipar European, esate baterako, badira ehun urte baino gehiago duten horrelako etxeak"

gainean, lurra eta landareak. Lurraren % 60 harri bolkanikoak dira; eta landareak, kaktus familiakoak. Beraz, ez dute zaintza handirik behar: urtean behin teiltatura igo, gauzak zelan dauden ikustera, eta kito. Hori bai, urtaroaren arabera, aterako diren loreak kolore batekoak edo

bestekoak izango dira. Adibidez, horiak udan, eta gorriak neguan".

Urrian ekin zieten etxea egiteko beharrei, eta Andoniren esanetan, oso prozesu erraza izan da. Horrela, bada, etxearen egitura egun banaka batzuetan altxatu zuten. Lanak lagunen artean egiten dabilta eta oraindik ukitu batzuk eman behar dituzte; esaterako, margotu egin behar da. Besteak beste, geotermia energia-sistema ipini da berokuntzarako, eta etxea aireztatzeko, eta eguzki-plaka txiki bat ere jarriko da. Era berean, ikerketa geobiologiko bat egin zen, etxearen orientazioaren eta antolamenduaren haritik.



EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

Bestorrene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55



TRIPPY
TABERNA


Especialitatea:
GIN TONIC

Behoko kalea - DERIO



HAUR-MODA
Tximeleta

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35



App berriak

Azkeneko hilabeteotan sakelako telefonoetarako garatu diren aplikazioen artean Euskal Izenak eta Mitzuli itzultzaile automatikoa daude

Guraso batzuentzat buruhauste handia da semearen edo alabaren izena aukeatzea. Askok Internetera eta liburuetara jotzen dute laguntza bila, buruan darabiltzaten izenen esanahia, jatorria eta beste xehetasun batzuk ezagutzeko. Hori dela-eta, izenak proposatzen dituzten app asko garatu dira azkenaldian iPhone zein Androiderako. Aplikazioak, batez ere, ingelesez eta gaztelaraz garatu dira, baina euskal izenak batzen dituen lehenengo aplikazioa orain dela gutxi sortu da. Aplikazioa Euskal Izenak da eta Batura Mobile enpresak garatu du, Bizkaiko Foru Aldundiararen laguntzarekin.

Aplikazio horren bidez, hainbat informazio eskura daiteke; hala nola sexuaren arabeko izenen zerrenda eta izenen esanahia eta jatorria. Era berean, zerrenda batean gorde daitezke izenik gogokoenak, eta erabiltzaileek aukeratzen dituzten izenen rankinga ere ikus daiteke. Izenen zerrenda egiteko, Euskaltzaindiak emandako datuak erabili dira.

Aplikazioa Apple Store eta Google Play-n eskura daiteke doan. Sortzaileen esanetan, aplikazioa oso lagungarria izan daiteke haurrari euskal izena ipini nahi dioten gurasoentzat. Horrezaz gainera, beste herrietako gurasoentzat ere izan daite-

ke baliagarria. Adierazi dutenez, Euskal Herriatik kanpo, baita euskaldun komunitaterik ez dagoen tokietan ere, gero eta ospetsuagoak dira euskal izenak. "Horrek, zuzenean edo zeharka, euskararen prestigioa bermatzen laguntzen du. Hizkuntza-erikiko enpatia ere handiagoa da".

50 itzulpen-noranzko

Mikel Artetxek, bestalde, Mitzuli aplikazioa sortu du, Elhuyarren laguntza eta babesarekin. Aplikazioak itzultzaile automatikoa bihurtzen du sakelako telefonoa, eta doan eskura daiteke Google Play-n. Artetxe Euskal Herriko Unibertsitateko IXA taldeko ikertzailea da.

Mitzuli Androiderako itzultzaile automatiko bat da, 50 itzulpen-noranzko baino gehiago eskaintzen dituen. Azaldu dutenez, baliabide urriko hizkuntzek protagonismo berezia dute halakoen artean. Hizkuntza horiek "izaera komertzialeko produktuek albo batera utzi ohi dituzte". Hala, Iberiar penintsulako hizkuntza gehienak batu dira aplikazioan: portugesa, gaztelania, katalana, galiziera, asturiera, aragoiera, okzitania eta euskara.

Testu bidezko itzulpena ez ezik, Mitzulik ahots bidezko sarrera/irteera ere eskaintzen du. Baita irudi bidezkoa ere. Adibidez, kartel bati argazkia egiten badiogu, aplikazioa han dagoen testua itzultzeko gauza da. Aplikazioak sarean zein saretik kanpo egiten du lan.

*Besteak beste,
izenen zerrenda,
esanahia eta jatorria
eskaintzen ditu Euskal
Izenak aplikazioak*

ERREKA
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Garmendia
ardoak

Pinoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tél./Faxa: 94 452 00 49

HORTZ KLINIKA

Idoia Zubieta

Osu-entzako eta Hortz-entzako
HORTZ-PLANTEAK - ODONTOTZIA ESTETIKOA
HAUTAK ZEIN HILAK

Dr. Aredakale, 11 - 1. er. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Urte plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

Bizi dugun hizkuntza ikasi edo ikasi dugun hizkuntza bizi

Egun on eta egun *off*



t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Ikasi dugun hizkuntza bizitzen haste-ko giltza egun on edo arrasti on esatea da euskaldunon artean, edo gabon. Hala ere, gaur egun –ingeleza ondo dakigu- nez– lagun batzuek esaten dute: egun on eta egun *off* –gauetz–.

Behin euskaldunon etxean sarturik, metodo ona da abestiak ikastea, gustatzen zaizkizun 100 abesti, letra ulerturik; kasurako: “Xarmangarria zira”.

Ume txikiak edo eskola sasoikoak badituzu edo adiskide euskaldunak, dakizun euskara oinarrikoa erabili lotsa barik eta ausartu txiste, gertaera edo atsoitz

polit bat kontatzen. Adibidez: Behin Iru-ñeko Gaztelu Plazan ginela, kuadrilla ba-tekoak kantatzen hasi ziren: *Pa-piru-lau -1,2,3,4-* abesti ezaguna. Edo, beste be-hin, Bilboko Zazpi Kaleetan entzun nuen: *Horrek gorputz ona dauka, baina burua botatzekoa, ganbak bezalakoa*. Dena dela, gure artean erdarazko istorioak tarteka-tzeko ohitura ere badago –*we are triling-ual*, antza–. Gurutzetako ospitaletik ir-ten eta andre bati entzun nion senarraga-tik –*Tiene derrames esateko*–: *Tiene fugas*. Gainera, Kaxildok azaltzen duenez, Ge-tarian bazen funtzionario bat: *Agente in-formativo de cometidos múltiples*, eta nor izango? Bada, *aguazila*.

Gero, euskal etxean sakonago sartu gura baduzu, ikusi Euskal Telebista euska-raz ordu erdian egunero. Hor *Herri Txiki infernu handi* topatuko duzu, kasu batera-ko.

Esandakoa nahiko da? Horrela joka-tzea ez da erdal menuan euskal sandwi-chak tartekatzea? Bai! Hala ere, artiku-lu honetan dioguna da, ikasi dugun hizkun-tza bizitzeko moduak topatu behar direla; eskolako berbeta formala bizitzako ber-beta bilakatzekoak. Horrela, *zaitut* nork nor aditza dela jakitetik *Maite zaitut* esa-tera eboluzionatzeko.



TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

RPS: 184/10

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212. Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com



ASADOR FUENTENEberria
"ur eta itsasoko baserria"



Gosariak
Afariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Okela eta arraina
txingarretan erreta

LEKUNBIZ AUZOAN 26
ZAMUDIO (BIZKAIA)
94 452 23 79
www.asadorfuenteneberria.com

Etxeko sukaldaritza

Barazki-paellea

t: Maite Lekerika

Osagaiak (4 lagunentzat):

- 300 g arroz
- Kipula erdia
- Berakatz-atal bi
- Azenari bat
- 100 g perretxiko edo txanpinoi
- 100 g leka
- 100 g zainzuri berde
- Oliba-orio zurrustada bat
- Gatza
- Barazki-salda edo pastilla bat (900 ml salda)

Prestetako errea:

Eltze baten orioa ipiniko dogu. Kipulea eta berakatzak txikituko doguz eta eltzera bota. Su eztitan erregosiko doguz. Barazkiak garbitu, txikituko eta eltzera bota doguz. Bost-zazpi minutuan erregosiko doguz. Arroza gehitu eta aurreko osagaia-kaz nahastuko dogu; ondoren saldea botako dogu, irakiten. Su bizian bost minutu eukiko dogu; eta beste bost minutu, su eztitan. Surtatik kendu eta estalgi zuldun bat ipiniko deusagu; edo zapi bategaz tapauko dogu. Hamar-hamabost minutu eukiko dogu jalkiten.



Jogurt-izozkia

Osagaiak (sei lagunentzat):

- 200 ml esne-gain
- 4 jogurt natural
- 4 koilarakada esne kondentsatu

Prestetako errea:

Esne-gaina katilu baten ipiniko dogu eta irabiagailuagaz harrotuko dogu. Jogurtak beste katilu baten ipiniko doguz eta irabiatuko doguz. Esne kondentsatua gehitu eta ondo nahastuko dogu. Nahasia esne-gainari gehituko deusagu eta ondo nahastuko dogu. Kristalezko molde batera botako dogu eta plastikozko paperagaz tapauko dogu. Hozkailura sartuko dogu, bizpahiru ordu, harik eta gogortzen dan arte.

MARMOLGINTZA GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK OBRAK HILERRIAK
Ugaldeguren 1 ind. 18-B nabea
48160 Derio, Bizkaia
T.: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63


CONSTRUCCIONES VALDUEZA
josevaldueza@gmail.com 609 97 15 14
ERABERRITZEAK
IGELTSEROTZA, ORO HAR
Fatxada termikoak eta akustikoak

ASTIKENEMOTOR
www.ASTIKENEMOTOR.com
DERIO - 946 451 781

KAFETEGIA IAZI JATETXEA
Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 36

ELORRIETA INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Uribe kalea, 12 behe Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

BIZKARGI
TABERNA ETA JANARIA
Urkiola, 6 DERIO 944541655



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Jururu*, Jose Enrike Urrutia.
- Ukabilak eta loreak*, Julen Belamuno.
- Aita gurea*, Iñaki Irasizabal.
- Espedizioa-Mendi ororen pisua*, Juan Ramón Madariaga.
- Izuen gordeleketan barrena*, Joseba Sarrionandia.

LITERATURA: UMEAK ETA GAZTEAK

- Bi kobazulo*, Uxue Alberdi, Antton Olariaga (ilustradorea).
- Etxeko saguak*, Xose Manuel González, Natalia Colombo (ilustradorea).
- Ozeanoa*, Anouck Boisrobert / Louis Rigaud (ilustradorea).

MUSIKA

- Eutsi goiari*, Kupela.
- Lurrean etzanda*, Ruper Ordorika.
- Euritan dantzan*, Gatibu.
- Jolasean ikasi, musikaz hazi*, Kontu-kantari.

Sudokua

5					4			
4			1	6				5
		6		2		7		
	6	4		8				
	8	2	7			5		
				3			6	
					3			
		7				3	4	
			2	5				

7	8	1	6	5	2	3	4	9
6	3	4	8	1	9	7	5	2
9	5	6	3	2	7	4	8	1
8	9	1	4	7	3	5	6	2
4	6	8	3	2	9	1	5	7
9	8	4	5	6	1	3	2	7
3	6	2	7	4	6	5	1	3
1	3	6	8	2	5	7	9	4
4	2	9	1	6	7	8	3	5
5	7	8	3	9	4	6	2	1

Peñasko
arraindegia

Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

PATXI
KOOP

PAIXO KOOPERATIBA ELKARTEA
Nerbioa gaitzena - Euzkara 4. 48170 Zamudio (Bizkaia) - Tel: 944 527 507 - info@patxi.koop - www.patxi.koop

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 00 06

Ikastaroak

Derio

- > Flamenko-txalo ikastaroa. Uztailaren 11n, 11:00etatik 13:00etara, Kultur Birikan. Piperdun elkarteak antolatua.

Ikuskizunak

Loiu

- > *Aita zontzia naiz* filma. Uztailaren 3an, 22:30ean, Elotxelerrin.
- > *Rio*. Uztailaren 10ean, 22:30ean, Zabalotxen.



Irteerak

Zamudio

- > Pirinioak. Uztailaren 3tik 7ra. Arroeta mendi taldeak antolatua. Informazio gehiago: arroeta@gmail.com

Lezama

- > Ozako ohiana. Uztailaren 17an, 17:00etan, Herriko plazan. Asteburu osoko irteera, Gailur mendi taldeak antolatua. Informazioa: gailurmt@outlook.com.

Bestelakoak

Derio

- > "Busti zaitez" esklerosi anizkoitza duten lagunen aldeko ekimena. Uztailaren 12an, 10:00etatik 14:00etara, kanpoko igerilekuan.
- > Tokiko agenda 21. Uztailaren 22an, 19:30ean, Kultur Birikan. DerioKomunikazioak antolatua.



lezama
consultorio veterinario
albaitaritza klinika
www.consultorioveterinariolezama.com

J.R. Galdona Madariaga
BI-515



Medikuntza orokorra
Txertaketak
Parasitoak hil
Mikrotxipa
Kirurgia
EKG
Analisiak
Ospitalizazioa
Ekografiak




94 455 56 19

Aretxalde, 21bis

48196 Lezama

LAGATZU EGUNA

EUSKAL JAIA 2015

bizi gure kulturen bizi gure herria



Ekainak 27

zapatua

Ekainak 26
barikua

MUSIKA KALEAN
Fernan eta Natxo
tabernen arteko
planzan

10:30 DRAGOI LUZEA Agirre Lehendakari plazan eta Gorbeia kaleko plazan

11:00 HAMAIKETAKOA Kultura etxeko patioan

12:00 LIPDUB "Bizi gure kulturen" kanteagaz, Arbolantxa eta Oiz kaleetan

13:00 KALE-JIRA-BIRA-DANTZA-POTEOA
Bertoko eta bertsolariak - Hiru bat eta Gazte Alai
MOTOR JOKOAK, Leizaola Lehendakari plazan, Zamudio Racing
Elkartearen eskutik

15:00 HERRI BAZKARIA, Kultura etxean 15 € nagusientzat, 10 € umeentzat.
Txartelak herriko denda eta tabernetan salgai. Azken eguna
ekainaren 23a, astelehena

17:00 TALDEKA KANTAU, TABERNA IBILTARIAGaz,
"Arrantzaleen Jolas eta Jokoa KULKI taldeagaz

20:00 ERROMERIA, TRIKIZIO taldeagaz Kultura etxean



Zamudioko talde
eta herritarren
ezinbesteko
laguntza lortzeko
erabakia



LAGATZU
ZAMUDIOKO
EUSKAL
ALKARTEA



Zamudio
Udale

Animatu eta parte hartu koadrileagaz
Jantzi zaitez antzinako
euskal erropakaz!

ZELAN?

POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa(*) bete eta bidali:
Aresti, 2 behea - 48170 - Zamudio

E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com helbidera

TELEFONOZ:

94 452 34 47
688 86 41 35

AHOZ:

Zure herriko euskara
elkarteko kideren bati esan

(*) Fitxa aldizkarian bertan eta
erakundeetan, liburategietan,
komertzioetan... utziko ditugun
diptikoetan topatuko duzue.



Egin zaitez Aikor!lagun

Etxe bat, lagun bat



Egin zaitez AIKOR!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota:

30 euro _____ Beste bat _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

Orri hau helbide honetara bidali:

AIKOR! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategiaren erantzulea TOTAN TXORRIERRIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuak kudeatzeko dituen baliabideak erabiliko ditu. Dena dela, edozein momentutan datuak eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horetarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

RENOVE PLANA

Diru-laguntzak, leihoak aldatzeko


Irailetik aurrera

Atzeraeraginezko izaera

Izapide guztiak, **geure esku**



Azkar ibili, diru-laguntzak
mugatuak dira-eta



PERSIANAS Y
VENTANAS
GORDONIZ

ADITUAK, PERTSIANA ETA LEIHOETAN



Pertsianak-eta aldatzen
ditugu era azkar, garbi
eta fidagarri batean

- Toldoak
- Marta esekitokiak
- Eltxo-sareak
- Estoreak
- Bilgarriak
- Panel japoniarrak

...

Gordoniz 97, 48002 BILBAO  946 034 689 – 678 054 887

www.persianasgordoniz.com



info@persianasgordoniz.com



Persianas Gordoniz